

ttipi ttapa


2002ko azaroaren 28a • XXII. urtea



Soziolinguistika Jardunaldiak

03

Beran burutzen ari diren Soziolinguistika Jardunaldietaz eta Bidasoa Ikerketa Zentroaren ekimenetaz aritu zaigu Patxi Larretxea kidea.



Ane Bergara futbol selekziora

08

15 urte bertzerik ez baditu ere, 17 urtez beheitiko Espainiako futbol selekziora deitu dute Berako Gure Txokoa taldeko aurrelari bizkorra.

04 Nafarroako Nekazarien Ganbara
hautatuko da abenduaren 18an

MUEBLES METS



Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak

4000 m² erakusketa AUKERA HANDIAK

**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
EREKIA**

**Sarrera
BERA**tik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA

*Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com



Larruzko besaulkiak

ME K

ERAKUSKETA
ALDAKETA

BEHERAPEN
HANDIAK

METS

ESKAINITZA
HOBERENAK

**Lehenengo
50ei 100€ ko
deskontua**



2x1

koltxoi eta
somieretan

- 4 TONUTAKO ZURAK
- 8 TAPIZATU
- 10 EGUNETAKO
ENTREGA-EPEA

29,90€



29,90€



39,90€



49,90€



DATUAK...

- **Bidasoa Ikerketa Zentruko kide da Patxi Larretxea. Aurten, hirugarren aldiz, Soziolinguistika Jardunaldiak antolatu dituzte.**
- **Euskararen Legea hartu dute solasgaitzat. Ortziral honetan eskainiko du Berako lamotenean azken solasaldia Xabier Mendigurenek. Aitzinetik, Goio Monreal eta Eduardo Aldasoro aritu dira.**
- **Duela lau-bortz urte sortu zen Bidasoa Ikerketa Zentroa, Fernando Mikelarena historilariaren ekimenez.**

Patxi LARRETXEA *Bidasoa Ikerketa Zentrukoa*

AITOR AROTZENA

«Gaurkotasuneko gaien inguruan eztabaida piztu nahi dugu jardunaldiekin»

Aitor AROTZENA

Aurtengoan Euskararen Legea aukeratu duzue jardunaldien gai nagusitatzat. Zergatik?

Jakina da tribunal batek gibelera bota zuela Euskararen Legea eta teorian indargabe dago momentu honetan. Horren inguruan gogoeta egin nahi genuen. Badakigu Nafarroako Gobernuak berriro indarrean jarri nahi duela eta horretarako hartu ditu eztabaidagarriak diren hainbat erabaki. Hortaz aparte, gai garrantzitsua iruditzen zaigu eta ez dago garbi zer gertatuko den. Horren inguruan eztabaida sortzea interesgarria da.

Zertan oinarritzen zarete gaiak aukeratzeko?

Gizarte mailan zein gaiak izan dezaketen garrantzia hausnarketa egiten dugu. Iaz, euskara lan munduan aukeratu genuenean, hori izan zen abiapuntua eta geroztik dinamika polita sortu da: lantegietako euskararen inguruan lan egiteko talde bat sortu da eta Gipuzkoara bertze esperientzia batzuk ezagutzera joan gara. Oraingoan ere gai interesgarria iruditzen zaigu eta gauza bera egi-

«Mendi-mutilen historiari buruzko lana egiteko asmoa dugu.

Elkarrizketa bidez bilduma bat egiteko ideia dugu»

ten bada, kontent ginake. Lehen jardunaldietan euskara eta ideologia landu genuen, Nafarroako ideologia ezberdinek euskararen inguruan zer pentsamendu izan duten aztertu genuen, historikoki eta gaur egun.

Jardunaldi hauteaz gain bertzelako ekimenak egiten ditu Bidasoa Ikerketa Zentroak?

Gure inguruan, gizarte eta historia gaiei buruzko interesa duen guzia bil-tzen ahal da. Urtean bizpahiru biler-egiten ditugu eta zerbait konkretua sortzen denean ere egiten da. Hiru liburu argitaratuak ditugu, Bera, Lesaka eta Bertizko Jaurerriaren historiari buruzkoak. Berakoa eta Lesakakoak herriko jendearentzat interesa dute eta herri horietan ongi saldu dira. Bertizkoa zabalagoa da, bisitan etortzen den jendeari ere interesatzen zaio. Lehen edizioak arra-

kasta izan du eta agortu egin da. Orain, bigarren edizioan dago.

Aitzinera begira bertze libururen bat argitaratzeko asmorik duzue?

Bai, hain xuxen, orain arte egindako jardunaldien aktak bildu nahi ditugu aurten. Hitzaldiak idatziz ere ematea eskatzen dugu eta jardunaldietan in-teres gehien izan duten gaiak liburu batean bilduko ditugu.

Bidasoa Ikerketa Zentroan parte hartu nahi duenak historian edo gizarte gaietan jakitun izan behar du, edo ikasmina izatea aski da?

Ikasmina izatea edo parte hartzeko gogoia izatea aski da. Gure arloa, arlo historiko-soziala da, eta hortan in-teresa duen edonork parte hartu de-zaake: toponimia edo herriko historia bat ezagutzera eman nahi duelako... Gure elkarte plataforma bat da eta laguntzak eskatzeko horrelako era-kunde bat behar izaten da aunitzitan. Orain, mendi-mutilen historiari bu-ruzko lan bat egin asmotan gabiltza. Inguru honetan aunitz izan dira eta orain gutti gelditzen dira. Elkarrizke-ta bidez bilduma bat egin nahiko ge-nuke, hori da ideia, ea gauzatzen den.



ARGAZKIA: LAMERIÑAS

8.120 LABORARI ETA ABELTZAINEN DUTE BOTO ESKUBIDEA

Nafarroako Nekazarien Ganbara hautatuko da abenduaren 18an

Nafarroako Nekazarien Ganbara hautatzeko heldu den abenduaren 18an egingen diren hauteskundeetan, nekazarien sindikatuetako 17 ordezkari aukeratuko dira. Sektorearen ordezkaritza sindikala neurtzeko baliagarria izateaz gain, Nekazarien Ganbararen osaketak berebiziko garrantzia du gero Espainia eta Europako Instituzioetan nekazaritzari buruz hartuko diren erabakietan eragiteko. Denetara 8.120 laborari eta abeltzainek dute botoa emateko eskubidea.

Joxemanuel IRIGOIEN

Abenduaren 18an, 99 hautesmahai egonen dira prest Nafarroa osoan 8.120 nekazari eta abeltzainen botoak biltzeko. Goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 7ak bitarte egonen dira irekiak eta egun horretan bertan jakinen da Nafarroako Nekazarien Ganbaran sindikatu bakoitzak duen ordezkaritza. Denetara 17 ordezkari aukeratuko dira. Duela lau urte egin ziren hauteskundeetan, UAGNk 11 ordezkari atera zituen eta EHNEk 6. UPAk ez zuen ordezkariarik lortu 30 botoengatik.

BOTOA EMATEKO TOKIAK

Herri guztietan ez da botoa ematerik izanen. Kasu batzutan, herri batetik ondoko herrira mugitu beharko da horretarako. Hemen segidan duzue botoa emateko tokien zerrenda

eta nongoek joan behar dute horrat botoa ematera.

HERRIA	NONGOAK	NON
ARANTZA	Herrikoak	Herriko Etxean
BERA	Herrikoak	Kultur Etxean
ELIZONDO	Baztangoak	Nekazarien Bulegoan
ETXALAR	Herrikoak	Eskola Zaharretan
GOIZUETA	Goizueta-Arano	Eskola Zaharretan
LABAIEN	Labaien-Eratsun Ezkurra-Saldias Urrotz	Herriko Etxean
LEITZA	Leitza-Areso	Udaletxean
LESAKA	Lesaka-Igantzi	Herriko Etxean
DONEZTEBE	Doneztebe Bertizarana Donamaria Elgorriaga-Ituren Oitz-Zubieta	Nekazarien Bulegoan
SUNBILLA	Herrikoak	Herriko Etxean
URDAZUBI	Herrikoak	Herriko Etxean
ZUGARRAMURDI		Herriko Etxean

SINDIKATUEN PROGRAMAK ETA HAUTAGAIK



EHNE-COAG

Baserritik bizi diren familien baserri-modeloa defenditzen du EHNEK

«EHNE-COAGen aldeko botoa, herengo baserri tiki eta ustiapen familiarren aldeko botoa da» adierazi digu Fermin Irigarai zerrenda buruak. EHNEren ahalegina horretan zentratuko da, «PAC berri bat lortu nahi dugu, baserritik bizi diren familiak kontuan hartuko duena, sektorearentzat prezio duinak ekarriko dituen, eta modu horretan, baserritik bizi diren familiak mantentzea posible egiten duena». Eta gaur egun horren alde egiten duen «sindikatu bakarra EHNE-COAG da». Izan ere, «UAGNk ustiapen industriak eta lur-jabe handien modeloa defenditzen du, baserriari kalte gehien egiten dion modeloa. Azkenean, ASAJA eta CEOerentzat izaten dire boto horiek». Dena den, duela lau urteko emaitzak hobetzea espero du Irigarai «presentatzen dugun jendea, gaztea eta eskarmentukoa baita, lanean ari zeko prest dagoena».

HAUTAGAIK

Fermin IRIGARAI 39 urte AURITZ
 Natxo LARRAINTZAR 45 urte ZOLINA
 Mikel PETRIRENA 46 urte SUNBILLA
 Ignacio GIL 36 urte FUSTIÑANA
 Javier ITURRALDE 39 urte ZOZAIA
 Pedro Luis GONZALEZ 33 urte ARELLANO
 Pedro M^a MINA 42 urte ARATZURI
 Juan Carlos ESPINOSA 39 urte SARTAGUDA
 Feo. Jose IRIARTE 34 urte ARRIPODAS
 Jose Ignacio BELTZA 42 urte ETXARRI ARANATZ
 Feo. Javier IRIBARREN 40 urte TAFALLA
 Martin Jose ALDAREGIA 40 urte ETXALEKU
 Dolores ITURRALDE 39 urte DONAMARIA
 Manuel ANDUEZA 42 urte ORONTZE
 Jose Aurelio MUÑOZ 33 urte ALESBES
 Pedro M^a IRAITZOZ 38 urte ORONTZE
 Eduardo SAN MARTIN 33 urte BARINDANO

ORDEZKOAK

Clara ARRESE 47 urte ORBAITZETA
 Juan Luis PELLEJERO 42 urte GAINTZA
 Alberto SAENZ 25 urte BIANA



UAGN

Baserritar guztien ahots bateratua izateko lanean ari da UAGN

Aurten 25 urte bete ditu UAGNk, eta zenbakiak borobilduz, bertze 25 proposamen egiten ditu etorkizunerako. Sei multzotan banatzen ditu proposamen horiek: Nekazaritza politikari dagokionez, zeregin nagusizat baserria dutenei «laguntzen murrizketa ez aplikatzeko lan egitea» azpimarratzen dute lehenik, «Bruselan eta Madril sektorearen eskaerak aldarrikatuz». Abelazkuntzan, «kalitateko ganadu-produkzioaren metodoak» proposatzen ditu. «Nekazaritzako banaketa-kate handian aurka» ekoizleen erakundeak bultzatu, eta era berean, «profesionalen ustiategiak lagundu» nahi ditu UAGNk. Gizarte politika eragin-korragoa ere aldarrikatzen du «gizarte segurantzaren sistema eta emakume laborarien eskubideak emendatzeko». Landa garapenak ere kezkatzen du UAGN, eta horretarako, Plan Berezia aplikatzea espero dute.

HAUTAGAIK

Angel ERAUL SESMA
 Begoña SANZBERRO ALMANDOZ
 Feo. Javier AYECHU ZARRAKAZTELU
 David URDANIZ ERRIPAZULOAGA
 Enrique GARRALDA ERRO
 Jose Joakin IRIARTE ARTAXONA
 Juan Miguel GARRO IRURTZUN
 Jose Luis SARABIA MILAGRO
 Angel Maria MAYAYO ALESBES
 Eduardo COSEDIDO AIBAR
 Carlos ARMENDARIZ MENDABIA
 Javier RODRIGO KAPARROSO
 Isidro GARBAYO ZINTRONIKO
 Pedro BULDAIN ZINBORAIN
 Santiago ELETA IRUNBERRI
 Santos M^a IRIARTE BARAIBAR
 Feo. Javier BUJANDA OKO

ORDEZKOAK

M^a Carmen PARRA SAN ADRIAN
 Jose Feo. AOIZ OLORIZ
 Miguel SAMANES ARGETAS



UPA

Laguntzak banatzerakoan 'modulazio progresiboa' proposatzen du UPAk

«Gaur egun PACeko diruak banatzerakoan erabiltzen den sistema goitik behera aldatuko litzateke guk planteatzen dugun modulazio progresiboa aplikatuko balitz» dio Pedro Mangado UPAko zerrendaburuak. Modulazioa hiru irizpideren arabera planteatzen du: «ustiapenaren neurria, ustiapenetik bizi diren edo ez, eta ustiapenaren kokapena kontuan hartuz». UPA sindikatua UGTekin lotua dago, eta Mangadok dioenez «hori gure mesedetan da». Hala ere, «nahiago genuke UAGN ASAJA eta CEOeko enpresarioekin lotua dagoela garbi agertuko balu, gordeka ibili gabe. Enpresarioen interesak defenditzea zile da, baina Nafarroako nekazariak jakin beharko lukete CEOen hartuko dutela azkenean azken erabakia». Azken hauteskundeetan ez zuten ordezkariarik lortu 30 boto eskas zutelako, baina oraingoan «ordezkaritza lortzea espero dugu».

HAUTAGAIK

Pedro MANGADO 52 urte SESMA
 Angel SORIA 34 urte KAPARROSO
 Emilio PEREZ 43 urte MILAGRO
 Gonzalo SANZ de VIGÜÑA 31 urte ELIZAGORRIA
 Angel GARCIA 52 urte BERBINTZANA
 Jesus MUGETA 43 urte ZARRAKAZTELU
 Juan Jose ETXARRI 57 urte AZKOIEN
 Jesus Ignacio GAMBRA 43 urte CADREITA
 Jose javier GOMARA 22 urte KASKANTE
 Casimiro VALLES 41 urte MURELU HAUTSI
 Jose Miguel MARTINEZ 59 urte MELIDA
 Maximo LOPEZ 21 urte ELIZAGORRIA
 Miguel LURI 22 urte MENDABIA
 Fermin ROYO 55 urte MUNUEL
 Jose Joaquin OLAGARAI 40 urte URDAZUBI
 Julian AISA 50 urte FUNES
 Fernando SIMON 59 urte MURTXANTE

ORDEZKOAK

Palmira MEDRANO 46 urte LERIN
 Iñigo Miguel AGUADO 38 urte ERRIPAZULOAGA
 Luis Angel SAINZ 39 urte LIZARRA

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrek, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Akats zuzenketa

337. alean, azalean eta kirol orrialdetan agertu ziren Mitxel Aginaga kirolariaren argazkiak Lameriñas-enak ziren.

Erredakzioa.

Aceraliako ELAtik erantzuna

Aceraliako ELA sekzio sindikaletik zera adierazi nahi dugu: gure sindikatura afiliatutako zonalde honetako PNVko alkate bakar bat ere ez dela, inolako modutan, ELAren ezberdina den aukera sindikal bat defendatzeagatik nabar-

mentu, berriki igaro dugun konfliktu sindikalean. Oraindik gehiago, ELAko afiliatuek defendatutako tesiekin bat egin duela momentu oro segurtatzen dugu, eta ez duela gure sindikatua- ren kontrako kanpainarik inoiz egin.

Horren aurkakoa erraten duena egia- ren kontra ari da, eta bertze hirugarren batzuek en-

gainatu egiten dute. Hauen helburu bakarra ELAren kontrako kanpaina mantentzea da, gezurrak zabalduz, gaur egun Aceraliako sindikatu abertzaleek dugun harreman ona hausteko helburuarekin.

Aurelio GUTIERREZ
ELAko bozeramailea
Aceralian.

UAGN

25

PROPOSAMEN ETORKIZUNERAKO

“Orain dela 25 urteak hona, sektorea profesional gaitzen ahalei buruzkoa izan da lanaren dibertsioa. Nafarroako Nekazaritza eta Abeltzaintza Batzuna.”

UAGN 25

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias 2002-11-16

«Hamabi urte bakarrik ditut, baina azienda artean nabil bortz urtez geroztik. Zazpi urteko esperientzia nahikoa da edozein baserritarrekin tratua ixteko. Nere etxean beti aziendetaz solastu dugu eta lan hau gure arbasoetatik datorrigu. Laugarren tratante belaunaldikoa naiz etxean. Orain DBHko lehen maila ikasten dut, baina nere aitaren bidea segituko dut (...) Josetxo, 20 urteko anaiari ere aziendak gustatzen zaizkio eta albaitaritza ikasten du Leonen».

Pedro Jose MARTIN
Doneztebeko tratantea
D.Noticias 2002-11-16

«Lehen, Zugarramurdiko jendeak bazuen izpiritu libre bat, beti besta egiteko prest. Norberaren afera zen bertze norbaitekin zerbait egitea. Eta gezurra ere bazebilen, noski, baina ez ziren gezur txarrak. Sasiko izatea ez zegoen hain gaizki ikusia, pentsa! orain, ordea, iduri du telebistak edo ez dakit zer arraiok izpiritu libre hori aintz jautsiarazi duela. Eta pena da».

Isidro BARBERENA
Zugarramurdikoa
Zabalik 2002-11-15

• 11 GALDERA LABUR •



Ameli PAJARES Etxalarko igeltseroa

Barakaldon jaiotako etxalartarra edo etxalarren bizi den barakaldoarra?
Barakaldon jaio nintzen eta 4 hilabete bakarrik ditut hemen. Oraindik ez dut nere burua "etxalartar" ikusten baina denborarekin halaxe izanen naiz.

Igeltseroek piropo erranzale fama dute. Zu ere halakoa zara?
Bat zutan bai baina maldizioak ere botatzen ditut.

Gosaltzeko kafesnea ala arraultze prexituak?
Kafesnea, dudarik gabe.

Zeri diozu beldurra?
Beldurra inseguritateak ematen dit.

"Barakaldokoa naiz eta daukat paro obrero horregatik joaten naiz euskaltegiara egunero..."
Bai, hala da. Paroan eta euskaltegian ibili naiz...niri eginiko kanta dirudi.

Herria ala Hiria?
Herria. Ez du jende aunitzirik, zarata gutti... Etxalar bezalako herri tikiak ditut nik gustoko.

Larunbat goizeko plana?
Larunbatetan posible badut mendira joatea aunitz gustatzen zait.

Aditu dugu hurrengo urteko Basetean sartuko zarela. Egia da?
Ez, erotuta ere ez nintzateke programa hortan sartuko.

Parrandazalea zara?
BAI! (Aunitz pentsatu eta irri batzuen ondotik...)

Ikusi duzun azkeneko pelikula?
"Minority Report", Tom Cruisen fikziozko film bat.

Loterian 500.000 euro irabaziz gero zer egingen zenuke?
Xuberoan baserri zahar bat erosi edo Eskandinabiara bidaiara batean joan.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

- Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoia eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA

BEINTZAko OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

BERA

Herritarren artea karrikara atera nahi da Karrikarte 2003rekin

Kirol instalazioen kudeaketa eta kirol koordinazio lana lehiaketara

Amaia eta Ainhoa

Berako karririk hila-bete batez erakusketa gela handia bihurtzeko intentzioarekin sortutako ekimena da Karrikarte. Erakusketa osatuko duten lanak herritarrenak izango dira eta bertako denda, ostatu, ikastetxe, banketxe eta eraikin publikoetan jarriko dira. Aurten, lehenengo aldia izanik, edozein estilotako pintura lanak erakutsiko dira eta "Bizilagunak" gaia landuko da. "Bizilagunak" zergatik? Azken urtetotan gure herrira atzerriar aunitz etorri eta hauek gure artean bizi direla kontutan izanik, kultura desberdinetako herritarrek bat egiten dugula adierazteko modua izan daitekeelako. Beraz, marrazkiek elkarbizitza eta elkarren eza-gutza bultzatu beharko dute. Proposamen hau beratar zaletu guzietan balduta dago eta lanak otsailaren 1etik 10era Kultur Etxean aurkeztu beharko dira. Egitasmo polita dugu Kultur Batzordetik datorrena, beraz, jendea animatzea bertzerik ez da falta eta bere arte lanak jende aintzinean paratzeko aurkeztea.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Espainiako 17 urtez beheitiko selekzioarekin kontzentratua egon da aste honetan Ane Bergara, Gure Txokoako aurrelari bizkorra. Lehendik Euskadiko selekzioan aritu bada ere, estatuko selekziara estreineko aldiz deitu dute 15 urteko neska.

Kirol instalazio eta ekitaldien kudeaketa

Berako kirol instalazioen kudeaketa eta kirol ekitaldien koordinazio zerbitzuen kontratazioa lehiaketara atera du Udalak. Zerbitzu hauen kudeaketak kirol instalazioen (kiroldegia, igerilekuak, tenisean aritzeko pistak eta Eztegar pilotalekua) esplotazioa, koordinazioa, mantenimendua eta garbiketa barneratzen ditu. Gainera, kirol eki-

taldien koordinazioan ere aritu beharko da arduraduna. Lehendabiziko urteko kontratuaren prezioa gehienez 48.080,97 eurokoa da.

Odei Artean parapente kluba

Azaroaren 17an Larunen Odei Artean parapente klubak bere bista ospatu zuen. Euskal Herriko leku desberdinetatik hurbildu ziren 30 lagun inguru. Partehartzaileak Larundik Berara hegan egin zuten eta

Ansonea jatatxean bazkaria eginez akautu zuten eguna. Ezezaguna izango da beharbada bi gazte beratarrek duten afizioa, Ramon Telletxea eta Miguel Solanok hain zuzen. Amasain Irungo klubeko kideak dira eta lortu dituzten garaipenak aipatzekoak dira. Telletxea Gipuzkoako Txapelketa irabazia da, Euskadiko Txapelketa bigarren postua lortu du eta Iparraldeko Ligan laugarren postua. Solano ere Estatu mailan le-

FLASH

Soziolinguistika Jardunaldiak

Aintzineko bi ortzirelantan Goio Monreal eta Eduardo Aldasorok egin duten moduan, ortziral honetan, azaroaren 29an Xabier Mendiguren Kontseiluko Idazkari Nagusia ariko da Euskararen Legeari buruz solasean. Jardunaldi hauetako azken hitzaldia izango da berak eskeiniko duena 18:30tan Jamotenean.

Haurrentzako tailerrak

Etxeko ttikienek (5 eta 12 urte bitarteko haurrek) larunbat honetan, azaroak 30, eskulan tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izanen dute goizeko 10:30etatik aintzinerat Eztegar pilotalekuan.

XVI. Bertso paper lehiaketa

Gure Txokoa Elkarteak eta Bortzirietako Bertso Eskolak antolatuta, Abenduaren 3an XVI. Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketa egingen da Kultur Etxean 19:00etan. Ondoren Unai Elizasuk gaiak jarritik, Sustrai Colina eta Amets Arzallusek bertso-saio berezia egingo dute entzuleak parte hartzaile bihurtuz.

hendabiziko hogeien artean dago, Iparraldeko Ligan seigarrena, Gipuzkoako Txapelketa zortzigarrena eta laugarrena Euskadiko Txapelketa.

ANSONEA jatatxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

LESAKA

Zahar Etxeko eta Herriko Etxeko iazko kontuak onartu dira

Konbentuko lanak egiteko udal planaren aldaketa onetsi da oraingoan

Aitor AROTZENA

Herriko Etxeko eta Andra Mari Zahar Etxeko iazko kontuak onartu ziren azken udal batzarrean. Herriko Etxeak 429.910.322 pezetako diru sarrerak eta 369.551.552 pezetako gastuak izan zituen. Zahar Etxeak 54.081.913 pezetako dirusarrerak eta 55.723.490 pezetako gastuak. Ezker abertzaleko zinegotziak absenteitu egin ziren, «*aurrekontuetan parte hartzeko aukerarik ez dugulako eta kudeaketa ezin txarragoa izan delako, milioiak harrika bota dira, Kultur Etxeko proiektuan adibidez*». Alkatearen ustez, «*Batasunari berdin zaio ari kontuengatik, feriegatik edo San Ferminegatik solasean, beti gauza bera erranez akautzen du*». Aurrekontuei dagokienez, «*urteak darrazkite udalean eta sekulan ez dute erreklamaziorik edo enmiendarik egin epearen barnean*» zioen.

Bertzalde, joan den alean aipatu genuenez, urriaren 18ko batzarrean komentuaran mol-daketarako beharrezkoa zen udal planaren aldaketa ez zen onartu.



ARGAZKIA: AITOR

Arkupe pilotazale elkarteak antolatutako gizasemeen pala motza eta emakumeen paleta goma txapelketen finalak azaroaren 9an jokatu ziren. Pala motzean, Garcia eta Carralek 40 eta 37 irabazi zieten Eskisabel eta Ducruileri. Paleta goman, Goiatz eta Amaia hernaniarrek 30 eta 22 irabazi zieten Bea Lizardi igantziarrari eta Edurne Argain iruritarrari. Orain, Batzoki elkarteak antolatutako lehen mailako paleta goma txapelketa hasi da. Larunbat arratsaldetan eta igande goizetan 21 bikote ari dira lehian.


Urriaren 31ko udal batzarrean, aldiz, EA eta EAJko zinegotzi guztiak agertu zirenez, beharrezko botu kopurua lortu zuten aldaketa horri hasierako onospena emateko. Ezker abertzaleko zinegotziak absenteitu egin ziren.

Ariketa militarren kontrako manifestazioa
Bortzirietako erakunde

ezberdinetako kide eta bizilagunek ariketa militarren kontrako manifestazioa egin zuten azaroaren 16an Lesakan. «Maniobra militarrik? Ez eskerrikasko, Demokrazia Euskal Herriarentzat» zioen pankartaren giblean hainbat lagun bildu ziren.

Takolo, Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berria
Tanturumairu ikastolako

Otxogorrienea Guraso Elkarteak, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia antolatu du igande honetan, abenduaren 1ean, 17:00etatik aitzinera Zambra aretoan. Pailazo taldeak hainbat urte bete ditu eta urtebetetze hori ospatzeko ikuskizun berria aurkeztuko du, «Kaxiporreta» izenburupean. Sarrerak Izarra okindegian daude salgai, 3 eurotan (egunean 4 €).



PERTSONAIA

Aintzane GOÑI

Auto Rallyetan goi mailako kopilotoa

Aste honetako honetan jokatzen zen Fiat Punto Koparen azken saioa. Proba horren faltan, lehen postuan zeuden Aitor Zubillaga gidaria eta Aintzane Goñi gidari laguntzaile lesakarra. «*Hau irabaziz gero, hurrengo urtean kotxe ofizialarekin parte hartuko genuke eta hori gauza handia da*» dio Aintzane. 26 urte ditu eta mutilarekin sartu zitzaion auto lasterketen txirrinta. Proba baino egun pare bat lehenago ibilbidea egiten du gidariarekin batera, oharrak hartuz eta probaren egunean, ohar horiek argi eta bizkor kantatzea da bere lana. «*Ez da lan errexa, baina bai aski polita*» dio. Dagoeneko Vasco-Navarro Kopa irabazia du Aintzane eta etorkizunean ere honetan segitu nahiko luke: «*Honek dependentzia sortzen du*». Inguru honetan auto gidari onak badirela uste du, «*Koteto, Ramon Zozaia, Beroa, Katton...*». Etxean ez zuten begi onez ikusten hasieran, baina Aintzane afizioa onartu behar izan dute.

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA
Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zabala
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ETXALAR

Kultur Etxea erabiltzeko bazkide egin beharko da hurrengo urtetik aitzinera

Mus eta partxis txapelketak hasi dituzte Larraburua jubilatuen elkartean

Joseba eta Nerea

Datorren urtarrilaren 1etik aitzinera Kultur etxeak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili ahal izateko (puntu teknologikoa eta liburutegia) bazkide egitea beharrezkoa da. Bi motatako bazkide egiteko aukera dago: arrunta, edozein herritarrentzat eta bigarrena, profesionala, denda eta enpresa tikiak dituztenentzat. Bazkide eginez gero eskuragarri dauden baliabideak urte guzian ordenagailua erabiltzeko aukera, etxalar.org duen posta kontua irekitzea eta bazkideak ez direnen aurrean lehenetsia ikastaroren bat aitzinera eramaterakoan. Bazkide profesionalek aldiz, aipatutako ezaugarri horiek guziez gain posta kontu eta interneten ibiltzeko ikastaro eta liburuxka, Etxalarko web ataritik norberaren web orria zintzilikatzeko aukera eta orri honren aktualizazioa.

Bazkide ez direnak,



“Do” izenarekin etorri zitzaigun joan den larunbatean Berako Joseba Irazoki musikari gaztea. Herriko Ostatua kanpoko nahiz bertako jendez bete zen, Joseba Irazokiren musika ambientalaz (erritmo programatu eta pedalekin eginiko efektuez lagundua) gozatzera. Gisa honetan, abian jarri da berriz ere denboraldi batez Herriko Ostatuan ixilik egon den kontzertuen martxa. Ondotik gehiago etorriko direla erran digu Iñaki Pikabea ostatuko nagusiak.

puntu teknologikoa bazarrik ibili daitezke orduko 3 €ko tarifa ordainuz. Bazkide egiteko, dagokion dirua (arrunta 50€ eta profesionala 200€) Nafarroako Rural Kutxan sartu behar da. Bankuko agiria, karnet neurriko bi ar-

gazki eta bazkide formularioa bete eta kultur etxera eramane behar da.

Mus eta partxis txapelketa Larraburuan

Urte aunitz gibelera joan beharko ginateke Larraburuko mus eta

partxis lehiaketak noiz hasi ziren jakiteko. Orduetik txapel eta kopa aunitz banatu dira. Aurtengoan, ere indar, gogo eta animoz beteak hasiak dira eta azaroaren 18an jokatu zituzten eguberriak arte luzatuko den txapelketa-

ren lehenbiziko partidak. Goizez elkartzen dira museko 15 bikoteak eta partxiseko zortziak berriz, arratsaldeko txandatan aritzen dira. Urtarrilean izanen dugu irabazleen berri.

Xorroxin irratia Landagainen

Aste honetan Landagain eskolako ikasleak beren ohiko klaseak alde batera utzi eta komunikazioaren munduan buru-belarri sartuak daude. Urtero Xorroxin irratia eskualdeko eskoletatik egiten duen itzulian, aste honetan Etxalarki egokitu zaio txanda. Asteleheneetik ortzirralera bitartean 11:15tatik 12:30ak arte ikasle guzian gai desberdinen inguruan solasean arituko dira; Elkarrizketak, ipuinak, kantuak, txistek, lehiaketak eta bertze kontu aunitz gehiago aditu ahal izanen dugu irratia esatari gazte hauen ahotik aste osoan 107.9 frekuentzian.

**KOXKILA
OSTATUA**



Zarandía, 4 - LESAKA



Ioredenda

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa _____	Fax publikoa _____
Liburuak _____	Plastifikazio _____
Tabakoa _____	a _____
Opariak _____	Enkuadernazio _____
Kukuxumusu _____	o _____
kamisetak _____	lanak _____
	Irteerak _____
	lanak _____

Egunero **Irteerak**

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •



IGANTZI

Herria ezagutzuz

Heldu den aste osoa hartuko dute Kultur Egunek

Saskigileak izanen dira Amabirgin eguneko protagonistak

Oskar TXOPERENA

San Frantzisko Egunen hasiko dira Kultur Eguna eta Amabirgin egunak akautu. Abenduaren 3an, 11:30etan Igantziko dantza taldeak saioa eskainiko du. Ondotik, saskiaren zozketa izanen da. Abenduaren 5ean, 19:30etan solasaldia emanen dute Patxiku Irisarri eta Mikel Belzunarteak Biltoki Elkarteak, "Badakigu zer jaten dugun?" izenburupean. Abenduaren 6an hiru ekitaldi izanen dira: 11:00etan frontoian herri kirola izanen da haurrentzat Kulkirekin, 18:00etan haurrentzako "Karramarro uhartea" pelikula, eta 21:00etan helduentzako "Horrelakoa da" eta "Non dago marxa" antzerki emaldiak izanen dira, azken biak Baratzondon. Abenduaren 7an, berriz, bertze hiru ekitaldi: 16:00retan Sambhu Antzerki Taldeak "Klin, klan, klowns" antzezlan eskainiko die hurrei Baratzondon; 17:30etan,



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Azaroaren 19an Nafarroako Gobernuak Ingurumen Sailekoen bisita izan zuten eskolan. Bertze lankide batzuekin batera, zaurituta arrautzen dituzten animaliak sendatzeaz arduratzen da egun hartan etorritako neska gaztea, eta euren lanaren berri eman ondotik sendatutako sapeltsa askatu zuten Landabizkarren. Argazkian, ikasle eta irakasleak sapeltsa noiz atera zain.

berendua izanen dute Biltokin, eta 21:00etan Limerick Irlandako folk taldearen emanaldia izanen da Baratzondon. Amabirgin Eguneke gai nagusia «Saskigileak» izanen da. 11:00etan hasita, saskigileen erakustaldia eta tresnen eta argazkien erakusketa izanen da plazan. Ilunabarrez, opil-jatea Biltokin.

Pala ikastaroak

Aspalditik zegoen herrian pala ikastaroak antolatzeke nahia. Adin bat arte haur gehienak gustora aritzen dira esku-pilotan, baina, badira bertze zerbait egin nahi dutenak ere, eta bertalde, ongi jokaturata ere, behin adin batera ailegatuz gero, neska gehienek utzi egiten dute esku-pilota. Bada, palaz

saiatu nahi duten guzientzat ikastaroak izanen dira hemendik aitzinera. Izena emateko oharrak paratu dira herri guzian barna, eta bertan dioenez, izena Gurutxe Iribarren, Anuntzi Txoperena edo Joxean Hitari eman behar zaio. Ordutegiak eta gainekoak izena ematen duten guziekin bilduta erabakiko dira.

Abelu edo Pagola

Gaur egun Igantziko hegoaldean dagoen mendi osoaz ari de-nean inor guttik deituko dio Pagola, Abelu aipatuko dute ia denek. Dokumentuei begiratzuz gero, ordea, hagitz berria ez bada behinik behin, ia beti parajeaz ari dira eta ez mendiaz Abelu (Abelegu, Abeluga...) toponimoa erabiltzen dutenean, herriatik ikusten dugun ezkerreko kaxkoaz eta bere inguruaz, hain zuzen. Pagola, berriz, hagitz gutti erabiltzen den toponimoa da, non eta ez bada "Pagolkegi" (Pagolako egia) parajea izendatzeko, orain landatzen ari diren parajea izendatzeko, errate baterako. Hauxe da Pagola toponimoaz "Registro de la propiedad" delakoan agertzen zaiguna: «*Monte denominado Pagola, de extensión aproximada de trescientas hectáreas, que linda por norte con río Latsa, por sur con monte Oyamberri hasta el alto llamado Artalecu, por este con Ventas de Yanci y por oeste con término de Aranaz*» Bertze batean: «*Monte de utilidad pública núm. 642 denominado Pagola*». Beraz, mendi osoari Pagola deitu izan zaio, eta erdiko kaxkoari Abelu.

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ARANTZA

Medikuaren kontsulta, Herriko Etxea eta eskola garbitzeko lan deialdia egin da

Espainiako ejerzitoaren maniobren kontrako mozioa onartu zuen udalbatzarrak

Nerea ALTZURI

Urte honetako hondar hilabetean sartzeaz gauden honetan, Herriko Etxeak herriko zenbait eraikin eta bulegoen garbiketarako lanak lehiaketara ateratu ditu. Heldu den urterako, medikuaren kontsulta, Herriko Etxea eta eskola garbitzeko lanak nori eman erabaki behar da, eta lan horiek egin nahi dituenak, proposamena abenduaren 10eko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko du udal idazkaritzan. Intereza duenak ere, lehiaketa publiko honi buruzko informazioa eskura izanen du idazkaritzan.

Espainiako ejerzitoari buruzko mozioa

Espainiako ejerzitoak aste batez Nafarroako zenbait lurretan maniobra edo ariketa militarrik egin ditu. Urruti-ra joan gabe, maniobra hauen kontrako ekime-

nak egin dira protesta gisa, Lesakan egindako manifestazioa adibidez. Azaroaren 6an Herriko Etxean egindako udal batzarrean, maniobra hauengan ezadostasuna adierazten duen mozioa onartu zen ahobatez. Gainera, «*herri honen udal dermionan armadaren sarrera formalki ez onartzea*» erabaki zuen udalak, baita «*armadaren ariketak eta okupazio militarren aurka deituak izanen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzea herritar guzietei*». Erabaki honen berri aginte militarrei

zein hedabideei emanen zaie.

Herriak eta hizkuntzak literatur lehiaketa

Bertzalde, azaroaren 6ko udalbilkuran ere, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Bortzirietako Bai Euskal Herriari taldeak elkarrekin antolatutako «Herriak eta Hizkuntzak» literatur lehiaketa diruz laguntzea onartu zen. Bortzirietako Bai Euskal Herriari taldeak egindako eskaera aintzat hartuz, 100 euroko laguntza ematea onartu da.

ARTXIBOKOA

Ehizi denboraldian segitzen dute ehiztari batzuk. Uso pasak ez dira ikusten orain, biligarroak ere pasatxiak dira... baina oilagorren esperoan hiztorduak ez dituzte akautu herritar batzuk. Ongi omen doa aurtengo denboraldia, nahiz eta honako balorazio hau, seguraski, suertea izan duenak erran duen. Izan ere, denak ez dira hagitz gustura gelditu, baina Ekaitza eta Bagatxarreko etxola eta postuen mugimentenorean ez dute gaizki pasatu ehiztariak. Mendian giro ederra izan dutenek egun politak pasatu dituztela ez dago dudarik!



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA

- ☉ Lan istripuak
- ☉ Trafiko istripuak
- ☉ Kirok lesioak
- ☉ Gihar, artikulazio... minak
- ☉ Biskortze ariketak
- ☉ Bertan tratamenduak

☉ Masajeak.

☉ Etxez etxeko laguntza.

Izaia, 20 BERA
Tfnoa 948 630187
Mugikorra 607 653208



Harategia

Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

MALERREKA

Ipuin eta bertso paper lehiaketa bosgarren aldiz antolatu du Euskara Batzordeak

Lanak abenduaren 9an bilduko dira eta 18an banatuko dira sariak

ttipi-ttapa

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna bulkatzeko bertso-paper eta ipuin lehiaketa antolatu du.

Bi mailatan banatuko dira partehartzaileak. Alde batetik, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak (8-10 urte) eta bertzetik, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak (10-12 urte).

Honako hauek dira parte hartzeko baldintzak: Lana euskaraz, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izatea. Egile berberak sail bakoitzean lan bakar bat aurkeztu ahal du. Beti ere, gaia libre izanen da ipuin nahiz bertso-paper lehiaketan. Ipuinen sailean aurkeztuta-



Saritutako bertso-paperak kantatu beharrik ez da izanen. Hori bai, ipuinekin batera, ttipi-ttapa aldizkariko gehigarri batean argitaratuko dira. Bi sariketarako lanak abenduaren 9an bilduko dira.

ko lanek guttienez 2 orrialde eta gehienez 6 izanen dituzte.

Bertso-paperak guttienez 4 bertso-ahapaldikoak eta gehienez

8koak izanen dira. Lanak abenduaren 9an, astelehenarekin bildu-

ko dira eta sail bakoitzean sari eder bat banatuko da. Sariak gain, sarituen lanak TTIPI-TTAPAN argitaratuko dira eta partehartzaile guztiak opari ttiki bat jasoko dute. Abenduaren 18an, asteazkenarekin, Doneztebeko eskolan sari banaketa egingen da eta partehartzaile guztiak txokolatada eskainiko zaie.

Mendi Abesbatza Leitzako Topaketan

Doneztebeko Mendi Abesbatzak parte hartu zuen azaroaren 17an Leitzan egin zen Mendialdeko Abesbatzen Topaketan. «Agurra». «loti Vonia» eta «Dulce Embeleso» kantuak eskaini zituen.

ARTXIBOKOA

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Terraza eta plater konbinatuak
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
saqardotegia jatetxea saqardotegia

BERA
© 948631076 • BERA

ARTEKARI
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

MEDIKU HOMEOPATA
6752. Kol. zbkia
Dra. Elena Palomo Lertxundi
Astelehenetik ostiralera 8.00etatik 20.00etara
Laruntzaldian gozpetan 10.00etatik 14.00etara
Zuzendaria: Bittiria 9 • Ortz. Bittiria eta BERA • IRUN
Tel. 943 438 316 • Tel. Urq. 453 759 011

ITUREN

Herriko Ostatua Bittor Jauregi baztandarrak hartu du enkantean

Kultur Egunak abenduaren 6tik 8ra antolatu ditu Ibintza taldeak

Iban ISASI

Aurreko alean aipatu genizuen, azaroaren lehenengo astean Herriko Ostatuaren enkantea izanen zela hirugarrenez, lehenengo bietan inork proposamenik ez zuelako luzatu. Oraingo honetan aldiz proposamen batizanda, Bittor Jauregi amaiurtarrarena, eta eskatutako baldintza guztiak betetzen dituen 10 urterako errentan hartu du Herriko Ostatua. Ostatu eta jatetxe gisa funtzionatuko du eta karta eta eguneko menua izanen dira aukeran.

Ateak noiz zabalduko dituen ez dakigu, izan ere oraindik pintatze lanak eta bertze zenbait falta direlako, baina TTIPI-TTAPA ri egindako adierazpenetan, ahal den bezain abudo zabalduko duela adierazi du Bittor Jauregik, ziurrenik Eguberriak baino lehen. «Sukaldaria harpatu behar dut lehenik, baina nire intentzioa bertako



ARTXIBOKOA

Argazki Rallyan ateratako lanak ikusgai izanen dira Kultur Egunetan.



Bittoriano Jauregi amaiurtarrak hartu du Herriko Ostatua.

produktuak eskaintzea da. jatetxe gisara funtzionatzea nahi dut, karta eta menua eskainiz baina edonorren saketaren eskura».

Kultur Egunak abenduaren 6tik 8ra

Aurtengo Kultur Egunak antolatzen hasiak dira Ibintza Kultur Taldekoak, eta iragarri dutenaren arabera aben-

duaren 6tik 8rako aste-bukaeran izanen dira. Aurtengoan, bertze urteetan bezala, pelikula, antzerkia, lehiaketak... izanen dira adin guzietarako zuzenduta. Azaroaren 16an eta 17an egindako argazki rallyan ateratako argazkiak ere ikusgai izanen dira egun hauetan. Larunbat arratsean afara izanen da Herriko Etxeko Ganbaran.

MALERREKA

Oitz eta Urrozko ur sareak moldatuko dira

ttipi-ttapa

Oitz eta Urrotzen egin beharreko inbertsioak Toki Azpiegitura Planean sartu ditu Nafarroako Gobernuak, azaroaren 21ean Rafael Gurrea Leku Administrazioeko kontseilariak sinatutako Foru Aginduen ondorioz. Oitzen, edateko uraren, ur zikinen eta euritako uren sareak berrituko dira 310.256 euroko aurrekontuarekin. Nafarroako Gobernuak 177.443ko dirulaguntza emanen du. Sare hauetaz gain, ur-biltegitik datorren tubo nagusia ere moldatuko da eta gero zola berritu egingen da 2.668 metro koadrotan.

Urrotzen, edateko uren eta ur zikinen sareak berrituko dira eta gero zola berrituko da. 259.594 euroko aurrekontutik 171.795 ordainduko ditu Gobernuak. 23 etxeetan izanen dute ura hartzeko modua.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

DONEZTEBE

Udazkeneko ur-hornidura arazoak moldatzeko lanean ari da Udala

Hilerria handitzeko proiektua ere onartu du Herriko Etxeak

ttipi-ttapa

Udazken hasieran ur hornidurarekin arazo aunitz izan zen Donezteben. Urriaren 14an, honen inguruko txostena egin zuten Nafarroako Gobernuo teknikariek. Aitzinetik, Doneztebeko Udalak Donamariakoari baimena eskatu zion, Artzeko ur-depositotik Trosketako iturri-ura ekartzeko. Donamariako Udalak zenbait aldaketa egin zituen proposamenean, batez ere ordaindu beharreko diru kopuruari dagokionez, eta Doneztebekoak onartu egin ditu.

Honetaz gain, Doneztebeko Udalak Erika errekatik ura hartu eta Errotazar-Iturrizar iturrira eramateko baimena ere eskatu dio Confederacion Hidrografica del Norte erakundeari. Horretarako, tuboa pasatu behar den terrenoen jabeekin hitzarmena negoziatu eta sinatzeko gelditu ziren udal batzarrean. Gainera, ur faltak sortu dituen ustegabeko gastuak ordaintzeko dirulaguntza eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio Departamenduari.

Bertze aldetik, ur-zikinaren depuradorak sortzen zuten usain txarrari aurre egiteko neurri teknikoak hartuko ditu Nilsa enpresak. Gai honen inguruan arrenkura azaldua zuten bizilagunek eta Nilsaren us-



ARTXIBOKOA

Ramon Agirre «Marron» mendizaleak Mongoliari buruzko diapositiba emanaldia eskainiko du abenduaren 21ean. Kontinente bakoitzeko gailurrik garaienak igan dituen lehendabiziko euskalduna da eta berriki Cho Oyu igan eta bertatik parapentean jautsi da.

tez, arrazoizkoak ziren kexu hauek.

Hilerria handitzea

Doneztebeko hilerria handitzeko proiektua 2001-2003 Hirurteko Hirigintza Planaren barnean sartu zuen Nafarroako Gobernuak. Patxi Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektoek egindako proiektu honen haserako aurrekontua 33.614,94 eurokoa zen, hau da, 5.593.055 pezeta. Denan den, azken udal batzarrean Doneztebeko kanposantua handitzeko proiektu teknikoak onartu zen. Aurrekontua 34.328,84 eurokoa izanen da. Proiektu ho-

nen lana egiteko kontratazio espedienteak ere onartu zen eta lanak, prentsan publizitatea egin ondotik, modu negoziatuan adjudikatze-ko prozedura ere ireki zen.

Erreka mendi taldea Piriniora

Hamabortz egunetik eginen zuten mendi ateraldirik ez du aurten antolatuko Erreka mendi taldeak. Horrek ez du erran nahi, ordea, geldirik egonen direnik. Abenduko lehendabiziko *zubian*, abenduaren 1etik 3ra, neguko hiru milakoa egingen dute, Viella inguruan dagoen Tuc de Culleras (3.010 m), hain zuzen. Horre-

taz gain, abenduan orientazio ikastaroa izanen da, Nafarroako Mendi Federazioko tekniko baten eskutik. Abenduaren 21ean, Jose Ramon Agirre «Marrón» mendizaleak (kontinente bakoitzeko zazpi gailur garaienak igan dituen lehendabiziko euskalduna) diapositiba emanaldia eskainiko du. Berriki Cho Oyura igan (8.210) eta geroparapenten jautsi egin da, baina oraingoan Mongoliari buruzko muntaia egin du.

Bertze aldetik, urtero bezala, Egunberrietako zarea zozketatuko du Errekak abenduaren 22an. Txartelak euro batean salgai daude.

FLASH

Bidelagun elkartea

Adinekoak, ezinduek eta gutxietsitako bertze kolektiboen (inmigranteak, adibidez) aldeko lana egiten duen Bidelagun elkartea bere ekitaldietarako lokala eskatu zion Udalari. Langarra Malerrekako Euskara taldeak Azkarretan duen lokala konpartitzeko borondatea ikusiz, hala egitea erabaki du Udalak. Beraz, Azkarretan, Bidelagun elkartearen eta Langarra euskara taldearen lokala izanen dira hementik aitzin.

Ezkundu gabeko bikote egonkorak

Ezkundu gabeko bikote egonkorren ordenantza behin betikoz onartu du Udalak aho batez. Bertzalde, autotaxi zerbitzu publikoaren araudia ere onartu zen azken batzarrean.

Squash eta arte martzialen gela kiroldegian

Udal kiroldegian squash eta arte martzialen gela egiteko lanean Saso Eskabazioak enpresa ari da, 114.376,74 euroren truke. Bortz hilaletako epea izanen dute lana akitzeko. Patxi Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektoek egin dute proiektua.

Santa Zezilia Eguna

Musikarien Eguna ospatu zuen larunbatean Agorreta Musika Eskolak. Arratsaldean kalejirak egin zituzten musikariek, elizan elkartzeko. Bertan kontzertua eskaini zuten talde eta bakarlariek, Mendi Tiki eta Mendi abesbatzekin batera.

GOIZUETA

Herria suspertu nahiean sortu da Kultur Taldea

Hamabost lagun dira oraingoz eta dagoeneko lanean ari dira

Esteban AROTZENA

Herrian kultur talde batean lana egin nahi zutenei azaroaren 9ra-ko luzatutako deialdiak inork espero ez zuen hainako erantzunajaso zuen, 17tik ia 50 urte bitarteko hamahiru lagun elkartu baitziren udal-tertxean. Gainera, geroztik gutxienez beste bi herritar gehitu zaizkio egun horretan osatutako taldeari.

Euskara Zerbitzua- ren eta Udalaren elkar- tasunarekin jaio den Kul- tur Talde honen helbu- rua herria suspertzea

omen da. Horrela, aza- roan egindako ekital- dietan parte hartzen ari da, eta honetaz gain, hi- ru taldetxoetan banatu dira kideak beste hain- beste lan aurrera era- man asmoz: bat, Xapo aldizkariaren bigarren alea prestatzeaz ardu- ratuko da; besteak, Goi- zuetak web-orri batizan dezan eman beharreko egun pausoak aztertuko ditu; eta hirugarrenak herri- ko etxerik ederrenak agertu eta bixitarientzat informazioa emanen duen katalogo bat egi- teari ekin dio.



ARGAZKIA: XABIER ETXEGIA

Giro ederrean burutu zi- ren azaroaren 14ean Umore Onak antolatu- tako Herri Olinpiadak. Argazkietan, talde ira- bazlea eta proba bat.

Barandalla

Gaixotasun sendae- zin eta larri batek jota dagoen Bautista Bar- andalla preso etxarria- rren askatasuna es- katu zuen Udalak aza- roaren 8an burututako plenoan. Onartutako mozioak dioenez, Es- painiako Zigor Kodea-



ren 92. artikulua- ren ar- abera etxean egon be- harko luke Bautistak jo- an den aspaldian.

Orain dela egun ba- tzuk Goizuetan eta in-

guruko hainbat herritan Espainiako ejerzitoak burututako ariketa mili- tarren aurkako mozioa ere onartu zuen udal- batzak osoko bilkuran.

NEKAZARIEN GANBARAKO HAUTESKUNDE KANPAINA

«Nekazarien bilgura handia» antolatu du EHNEk Elizondon

Abenduaren 2an egingen da Elizondoko Antxitonea Trinketean

ttipi-ttapa

Hauteskunde kan- painari hasiera emate- ko, «Nekazarien bilgu- ra handia» antolatu du EHNE-COAGek heldu den astelehenerako Eli- zondoko Antxitonea Trinketean. Goizeko 11etatik goiti, hitzaldiak, bertsolariak eta hame-

ketakoa izanen dira, besteak beste. Honako goiburu hauxe hautatu dute hortarako: «EHNE baserritarren indarra, gurea hemengo».

Hitzaldiak Lesaka, Leitza, Doneztebe, Goizueta eta Zugarramurdin



ARGAZKIA: ARTXIBOA

Kanpainari hasiera emateko, hitzaldia, hameketakoa eta bertsolariak antolatu du EHNEk Elizondoko Antxitonea Trinketean.

Kanpainaren age- rraldi nagusia Elizondon egin ondotik, hitzaldi gehiago ere iragarri di- tuzte. **Leitzan** eta **Lesakan** abenduaren 5ean egingen dira arra- tseko 9etan, Leitzako

udal-tertxean eta Lesaka- ko Kasinon. Abendua- ren 10ean **Zugarra- murdin** egingen dute hi- tzaldia, arratseko 9etan Akelarrenean. Eta hu- rrengo egunean, aben- duaren 11n, **Donezte-**


be eta **Goizuetako** txan- da izanen da. Donezte- ben Liburutegian ema- nen dute hitzaldia arra- tseko 9etan, eta Goi- zuetako Udal-tertxean ere, gaueko 9etan emana da hitzordua.

1. Kortinak eta koordinatuak
2. Sukaldea jartzeko aukerak
4. Teilatuko ura aprobetxatu
5. Indukziozko sukaldeak
6. Ateak eta armairuak
8. Barneko eskailerak

9. Gauza tiki baina bereziak
10. Energia berriztagarriak
12. Egurrezko sukaldeak eta tximiniak
14. Marmola eta granitoa
15. Egongelak: Lasaitasun iturri
16. Leihoetako materialak

Kolokan dekorazio estudioa

Kortinak eta koordinatuak



Josune URROZ

Etxe bat dekoratzerakoan kontuan hartu beharreko kontseilu batzuk ematen saiatuko gara atal honetan.

Koordinatu nahi dugun gela batean, printzipioz, kontuan hartu beharko dugun elementu bat argiztapena izanen da, eta horrekin batera, gela horretan behar ditugun argiak.

Bertze elementu garantzitsua kolorea izanen da, baina hortan, kolore kontraste eta koordinatuetaz hitzegiterakoan, interesgarriena bakoitzak bere puntu pertsonala jartzea izaten da.


Sukalde batean kortinak jarritz gero, kolore

argiak edo estanpatuak bereiztuko ditugu. Bi modutakoak daude; batetik estoreak (beti kontuan hartuz, estoreak igotzeko eta jausteko funtzioa dutela) eta beste itxekitakoak.

Logela koordinatzea erraxago da, bakoitzaren gustuak sartzen baitira horretan. Logela batean koordinatu guztiak, bai lisoak eta estanpatuak badute bere lekua.

Egongela dekoratzerakoan, orokorrean, dugun dekorazioarekin jotzeko dugu, linozko koloreak listatuak eta gainerako koordinatu guztiak.

Estoreak kortinak, kortina handiak... nahi dugun argiaren arabera, kotoak jarriko ditugu. ♦



Sukalde batetan kortinak jartzekoan kolore argiak edo estanpatuak bereiztuko ditugu. Logela kordinatzerakoan erraxago izanen dugu bertan bakoitzaren gustuak sartzen direlako.



KOLOKAN

tlf 667717681

DEKORAZIO ESTUDIOA

titulaturiko diseinari
eta paisajista teknikari

PROIEKTU ETA ERREFORMAK
ETXEBIZITZA ETA
LOKAL KOMERTZIALETAN

OPARIAK
aitzari mexikarrak
lanparak
alfonbrakkoadroak
koltzak
edredoi nordikoak

iturriandeta karrika, 3
31780 BERA
Tel. 948 625 444



**PUERTAS
PAGOLA**
Eztegara pasealekua 14
BERA

SALMENTA eta PARATZEA

- Ateak
- Leihoak
- Eskailerak
- Armairu enpotratuak
- Parketa
- Tarima...

Tel: 636 17 28 95 • Faxe: 948 63 04 79

**Juan Ignacio
Oartzabal**
arkitektoa



948 630304
Ipar Karrika, 15
BERA

GAZMENDI eraikuntzak

SAN JUAN KARRIKA • GURE BORDA
SUNBILLA

TFNOAK: 948 450130 - 948 451666
MUGIKORRA: 619 469 784

ETXEBERRIA ZYRGINDEGIA

Tel.: 948 450310 • Etxekoa: 948 580997

Mugikorra: 608. 677 997

ELGORRIAGA

Sukaldea jartzeko aukera ugari

Joxe Mari MINDEGIA

Mindegia zurgindegia

Sukaldea gaur egun ez da bakarrik janaria prestatzen den lekua. Bertan jan ere egiten da, eta hainbatetan familia bertan biltzen da. Batez ere, lan egiteko leku erosoak izan behar du.

- Koloreak eta materialak nahasiz, leku bero eta goxoa sortzen ahal dugu.
- Leiho bat baldin baduzu, harraska bere azpian paratzeko aprobetxatu (iturriek leihoa irekitzeko eta ixteko trabarik ez dute egin behar, noski). Jateko lekua ere jartzeko ahal da leiho azpian.
- Entxufeak ongi planifikatu. Bat gehiago jarri beti, elektragailu tikiendako, batidora edo tostadora, adibidez.
- Entzimera hautatzerakoan arreta berezia paratu. Dekoratihoa izateaz gain, erosoak eta erabilgarriak izan behar du. Granito eta marmolezkoak garestiagoak izaten dira eta, gainera, zenbait sustantziekin kolorea erraz galtzen ahal dute. Aukera ona zura da, bai, txapatua, baita trinkoa ere. Bertze aukera batzuk baino garestiagoa izan arren, berotasun handia ematen dio giroari, aunitz irauten du (tratatu dator) eta mantenimendu errazekoa da. Silestone eta corian material sintetikoek emaitza ona izaten



Altzari

**lakatuek nahi duzun
kolorea jartzeko
aukera ematen dizute
bai dizdiratsua, baita
diztiragabea edo
satinatua ere, baina
marrak edo kolpeak
aisa nabari zaizkie.**



Teilatuko zurak
Etxe zaharren
moldaketa
Etxe berriak
Eskailerak
Sukalde-mobleak

☎ 948 451906 • 676 847281
AURTIZ



dute eta iraunkorrak dira. Bertze aukera ona, obran egindako entzimerak dira, azulejoarekin estaliak. Kasu honetan, azulejoen arteko tartea ongi konbinatzen duen kolore batekin tintatzea eskatu, guttiago zikintzeko. Zahar itxurako giroendako egokia da.

- Sukaldeko altzariek modu ezberdineko akaberak izaten dituzte. Laminatu sintetiko edo estratifikatuek emaitza ona eskaintzen dute, baina denborarekin altxatzen ahal dira. Laminatu metalikoek edo erdoil ezineko altzairuarekin egindakoek ere emaitza ona eskaintzen dute, baina garestiagoak dira. Azken aukera hau hautatuz gero, giroa sobera hotza ez izateko, egurrezko entzimerarekin konbinatu edo kolore beroak erabili estalduretan. Lakatutako altzariek nahi duzun kolorea paratzeko aukera ematen dizute, bai diztiratsua, baita diztiragabea (matea) edo satinatua ere, baina marrak edo kolpeak aisa nabarmentzen zaizkie. Egurrak berotasun handia ematen du, baina ez badago ongi tratatua, beroak, hezetasunak edo eguzkiaren argiak kalte egiten ahal dio. Ageri denez, material guziek badute bere gauza onak eta txarrak. Zure sukaldeari eman nahi diozun giroan eta zenbat erabili behar duzun pentsatu, eta



horren arabera materialik egokiena aukeratzeko modua izanen duzu.

- Ahantzi behar ez den aukera, obran egindako sukaldeak dira. Neurrira egiten dira, ateei nahi duzun akabera ematen ahal diezu eta altzari arruntekin neurrira egindako sukaldeak baino merkeagoa izanen da. Neurri berezi eta xoko aunitz dituzten sukaldeendako aukera egokia da hau, lekua hobekiago aprobetxatuko baituzu. Zahar itxurako estiloa gustoko baduzu ere aukera ona da. ♦



Egurrak berotasun handia

ematen dio sukaldeari, baina ez

bada ongi tratatua, beroak,

hezetasunak edo eguzkiaren argiak

kalte egiten ahal dio.



PINTURAS LEGUIA S.L.

Pintura lanak
orokorrean

Rafa: 600 819 640

Eztegara 26, 2.C - BERA

Tximistindar

tximistindar@terra.es

elektrizitate

instalazioak

639 125046 • 693 608034

Allkaiaga industrialdea, ☎ 948 631452

Nola aprobetxatu teilatuetako ura

Gure inguru honetan ur eskasirik ez dugun arren, ez dugu horregatik alferrik galtzen utziko. Zuen ura kudeatzeko sistema praktikoa proposatzen dizuegu.


Cesar BARANDIARAN

ALKAIN Eraikuntza Materialeko

Bio-eraikuntza teknikaria Hondarribia

Ura erabili ahal izateko, lehenik lortu egin behar dugu. Gure teilatuak ur kopuru handia hartzen du. Kasurik hobereanean, euritako ura biltzen duen tubotik beheiti joaten da ura edo, bertzenaz, etxearen inguruan putzua sortzen du. Ur hau, hustubidetik biltzen ahal da eta ur-biltegi batera desbideratu. Behin bilduta, ez dio eguzkiak jo behar, sobera ez berotzeko, eta intsektuak, arratoiak eta zinkeria sartzen ez da utzi behar. Horretarako, komenigarria da lur azpiko biltegia egitea, urak gainezka egiten duenean zuzenean estoldara edo hustubidera joateko.

Behin ura bilduta, ponpa baten bitartez, edateko moduko ura behar ez dugun leku ezberdinetara banatuko dugu. Zati bat komunitara eramaten ahal da, Kontuan hartu behar da, euritako ura beratsagoa dela eta arropa ikuzgailuan eta baxera-garbigailuan garbikari edo detergente erdia kontsumitzen da. Bertze instalazio bat, ureztatzeko eta baratze-lora-



tegi eremura joanen litzateke. Hemen, landareak bustitzeko ur aunitz izanen genuke. Hirugarren instalazio batekin, adibidez, autoaren garbiketarako edo kanpoaldean iturria jartzeko ura lortuko genuke. Sistema ximple honekin, estoldatik galtzen den ur kopuru handia aprobetxatzen ahal dugu, dirua aurreztuz eta uraren kudeaketa errespetagarriagoa lortuz. ♦

Bildu den euritako uraren zati bat komunitara eramaten ahal da.

Ur hau beratsagoa da eta arropa-garbigailuan eta baxera-garbigailuan garbikari edo detergente erdia kontsumitzen du.



BERATARRA ARGIÑAK

DONEZTEBE 670 48 93 37

BERA 617 34 63 78

Leitzako bidea, 66 • 8. blokea 2.C • 31740 DONEZTEBE



Indukziozko sukaldeak

Sukaldeko sistema berriena, seguruena eta egokiena dela diote adituek. Indukziozko sukaldean jakiak prestatzea atsegina da.

Gasaren sua edo su-elektriko halogenoa baino azkarragoa eta malguga da, baina horrez gain, prestatzen ari den jakiaren tenperatura ongi graduatzen ahal da; ia gradu zentigradu bateko gorabeherarekin, hain zuzen. Haragia ere, arraultzak frijitu edo esnea (gainezka egin gabe) irakiten eduki nahi baldin bada, indukzio-labea da horretarako tresna aproposena. Txokolatea bera ere urtzeko, lapikoan zuzenean.

Dena dela, beste abantaila batzuk ere baditu indukziozko sukaldeak. Hagitz erraxa da garbitzen eta mantentzeko buruhausterik ez du ematen. Lapikoan janaria berehala berotzen da, su-

kaldea bera berotu gabe, eta gainera energia kontsumoa bertze sukaldeena baino tikiagoa du.

Bertze sukaldeetan janarietara beroa kondukzioz heltzen zaie, baina indukziozkoetan sistema arras ezberdina da. Ontzia bera da indukzio-korronteen bidez janariaren tenperatura igoarazten duena. Horregatik, segundoan alda daiteke janariaren tenperatura. Lapikoa ukituz dagoena bertzerik berotzen ez delako, sukalde bera lapiko inguruan hotz mantentzen da. Eskua erretzeko beldurrik ez dago, beraz, eta lapikoa sukalde gainetik kendu orduko automatikoki itzaltzen da. Jatetxeetarako eta pertsona aunitzendako janaria prestatu behar dutenentzat indukziozko sukalde bereziak ere egiten dituzte; 28 cm. diametroko suak dituztenak, hain zuzen.



OSKARIZ ANAIK

ARGIÑAK

MOTA GUZIETAKO ARGIN-LANAK

948 452 255 - 619 406 388 • Mainerrenea etxea • 31700 ELIZONDO

ARROZTEGI METALIKOA

*S. Odríozaola
B. Huici*

Tel.: 948 63 12 44

Alkaiaga Industrialdea •
Elutxa karrika • Pab. 3/18
31789 LESAKA

JUANTXO SAN MIGUEL

Iturgintza

Kalefakzioa eta gasa

☎ 948 45 08 66 - 626 112 415

Elizagibela, 2 - 3,a • 31.740 Doneztebe



BIKAIN ERAIKUNTZAK

- Etxeetako buztin-bloke isolatzaileetan **ESPEZIALISTAK**
- Karezko fatxadak





Javier Manterola

Tekniko instalatzailea

iturgintza • gasa • kalefakzioa

948 630 031 • 629 449602

Iturlandeta 4, behea • BERA

PIKABEA

Molineru drogerian
galdeku

pinturak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA



TXARUTA, S.L.

Iturgintza
Kalefakzioa
Gasa

948 45 17 63 - 659 77 00 15

Gaztelu



Alicia T. Erlanz

BEHAR DITUZUEN
LAN TXIKI
HORIENTZAT

SERVI LAN

OFIZIALE GUZTIAK

SERVI - LAN_{en}

Elizagibela, 5 • DONEZTEBE
Tel. 948456193 - Fax. 948450760

Ateak eta armairuak

Etxebizitza batean moldatze lanetan sar-tzea ez da batere erre-xa, baina oraingoan etxebizitzaren barneal-dean eta bereziki, baz-tererra utzi ezin diren bi osagarriri buruz ari-ko gara, ateak eta ar-mairuak.

Gauregun, atea egi-terakoan dentsitate al-tuko aglomeratu oina-riaren gainean, zur kla-se aunitz eta onekin egindako txapeatuak erabiltzen direnez, kon-sumitzaileek kalitate handiko produktuak erosteko aukera dute, edozein sakelerako pre-zioetan gainera. Gere-zi, haritz, gaztain eta ber-tze zuretan egindako ateak erosten ahal di-tu gaur egun edozei-nek, gure etxebizitzan irudia hobetuz.

Modelo ugari dau-de gustu guztiak bete-tzeko, modelo tradi-zionalenetatik hasi eta berritzaileenak bitarte, adibidez, ate lixatu gre-katua, markoak esku-a-dran dituen, dudarik gabe zahar berritzearen merkatuan produktu-rik berriena dena.

Armarioetan ere, pasairako ateen erai-



IGELTSU PROIEKTATUA
LOIZATE

J.M Mitxelena

X. Zubieta

948 637 750
689 908 665

BERA

948 634 199
677 559 436

Ateak egiterakoan dentsitate altuko aglomeratu oinarriaren gainean, zur klase aunitz eta onekin egindako txapatuak erabiltzen direnez, kontsumitzaileek kalitate handiko produktuak erosteko aukera dute, edozein sakelerako prezioetan gainera. Gerezi, haritz edo gaztainean egindako atea edonork erosten ahal du gaur egun.

kuntzan eta zur aukeran erabiltzen den prozedura berdina edo beretsua erabiltzen da, baina horretaz gain, irekitzeko moduak nabarmenki garatu dira. Ate irristakorrak, biltzen diren ate irristakorrak, zabukiak edo tolesgariak, ispiluen aukera, ohatzearen estalkiarekin ongi egokitzen den kortinez hornitutako kristalak, tapizeriak, hain gogaikarriak gertatzen diren goiko apalak ezabatzea, etab... Eta armarioen barnealdeak, zer erranik ez, banaketa praktikoa eta ongi antolatua izateko diseinuak egiten dira, apalekin, kajoiekin, kakotegi edo pertxeroarekin, oinetakoendako lekuarekin, atorrendako, etabar... barnealdea moldatzeko aukera ere baduzu, osagarri berriak jarriz edo kenduz, bere baitan duten kremailera sistemari esker.

Pasairako atean eta armairuen aitzinaldean erabili beharreko zurak ez dira nahitaez berdinak izan behar. Hobe da armairuaren aitzinaldeak logelako ohatzearekin eta mesanotxearekin bat egitea. Armairua etxebizitzako pasabide batean dagoenean, orduan bai, zurak berdina izan beharko luke, baina beti dago armairuko ateei ezberdintzeko osagarriren bat jarzea, ispiluak edo laka-tuak adibidez. ♦

ETXEBESTE

iturgintza
kalefakzioa

© 948 630002 • 670 412998
Herriko Etxeko Plaza, 11 • BERA

URROZ ANAIK
eraikuntzak

Igeltseritza lanak orokorrean

San Esteban 8 • Sigastea etxea
© 948 630048 • BERA

Jose Canabal

Instalazio elektrikoak
orokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAK**

☎ 666 57 58 99 - 948 637 541
IGANTZI

HARRI-LAN^{SL}

**Harri
zizelkariak**

Harri landuak, paretak apaintzeko harriak,
harlauzak...

Oharriz auzoa
☎ 948 452 143 • Fax. 948 452 452
31.795 LEKAROZ

ASTIZ ANAIK
zurgindegia

zurgintza lanak
orokorrean

Aldude etorbidea, 5
ELIZONDO
☎ 699325449 • 948 580886

PITTI
ESKABAZIOAK

© 616 513491 • **DONEZTEBE**



Astiz anaiak

Zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean

Ateak, leiho eta tarimak

Elbarren 84, 31880 Leitza
948 610 606 • 948 610 285

HUR-BERRI SL

ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

ELEKTRIZITATEA

☎ 948 452 449 - 616 791 071 • Fax: 948 452 452

Oharriz - 31795 LEKAROZ

LEIZ N I K

ERAIKUNTZAK

Patxi Arrazola, 14 • 1.A

Tel. 948 610 934 / 948 610 927

Mugikorra 689 231 961

LEITZA

IRIBARREN

zurgindegia

LEIHOAK

* Obrako lanak orokorrean.

* Tarima, ateak, eskailerak ...

948 635071 ETXALAR

Antsolokueta 28, behea



Barneko eskailerak

Barneko eskailerak, bere bolumena eta erabilgarritasunarengatik, dau den inguruko osagai garrantzitsuenen bihurtzen dira. Eskaileraren eraikuntzan material desberdinak erabiltzen ahal dira, baita arkitektura estilo aukera zabala ere. Horregatik, eskaileraren proiektuan edota eraikuntzan, profesionalak edo artisaun kualifikatuak aritzea komeni da. Barneko eskailerek funtzio bikoitza betetzen dute.

Lehen funtzioa, noski, bi solairuen arteko joan-etorria bideratzea, eta bigarren funtzioa, garrantzi guttiago ez duena, dekoratiboa edo artistikoa.

Funtzio bikoitz hau, erabilgarriak diren bertze dekorazio osagarriekin gertatzen ez den bezala, modarekin

eta denborarekin ez da aldatzen. Orokorrean eskailerak behinbetiko egiten dira, eta jabeari azkenera arte lagunduko diote. Ezaugarri hau dela medio, eskailera honekin beharrezkoa den denbora guztia pasatu behar da, bere garapen eta funtzionaltasunean pentsatzen. Gogoan hartu beharko da, modu berean, beharrezkoa izanen duen segurtasuna, etxean haur ttikiak daudean, momentu guztietan erabilia izanen baita bizi osoan.

Erosotasuna ere eskaini beharko du beharrezkoa denean, adibidez, norbait besoetan daramagunean, jende heldua denean, edo bertzerik gabe, eskailera zakarki ez erabiltzeko. ♦

TXARAGORRI

iturgintza

☎ 649 853 440



Elbarren, 56 (Martikonea)
31880 LEITZA



Cosas de Casa

Gauza ttikiak baina bereziak

COSAS DE CASA n etxe bakoitzari hain ukitu berezi eta pertsonala ematen dioten gauza ttiki horiek eskaintzen dizkiogu bezeroari. Pertsona bakoitzaren gustu eta ideiak errespetatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Horretarako, altzari osagarriak aukeratzen ditugu, kolorea ematen duten lore idorrak, ispiluak, koadroak, tapizak paretak jartzeko, arropa-saskiak, haurren jostailuak gordetzeko kutxak, erlojuak, kandelak eta aire-gozagarri naturalak, intentsuak... etxeari ongizate usain goxo hori ematen



diotenak. Etxeko ganbaran gordeak dauden gauzak berreskuratzen ere lan egiten dugu, erabilera berri emateko eta zopa-ontziek, teilek, bandejek, garrafoiek edo mesanotxeek izan dezaketen balio sentimentala berreskuratuz. COSAS DE CASAko dekorazioa zahar itxurako etxetara zuzendua dago batez ere, baserriak, inguruko jate-txeak, burdina, zura, minbrea, eta lore idorrak erabiliz. Kontrasteagatik azken modako artikulua ere lantzen ditugu gurean. Akitzeko, gure azken berrikuntzak ikustera gonbidatzen zaituztegu. Gustatuko zaizkizue! ♦



Marmolak eta granitoak

- Sukalde eta komuneko entzimerak
- Granitoan xukaderak
- Hileta artea
- Hilarriak

31740 OROÑOZ MUGAIRI
tel. 948 592 325 - fax. 948 592 295



PRESTATU EGUBERRIETAKO OPARIAK!
Opari pertsonaletan azken berrikuntzak ikusiko dituzu, osagarriak, zapiak, boltsok, karterak, bitxiak eta lurrinak.
Etxerako eta dekorazio artikulua berriak ezagutuko dituzu, altzari laguntzailea, kutxak...
ZATOZ BISITATZERA, ESPEROAN GAITUZU!
Ordutegia: 9:30-13:00 eta 16:30-20:00
Larunbat arratsaldeak
Igandea, urtarrilak 5 zabalik
Elizagibela • DONEZTEBE • Tel-Fax: 948 450409



Dekorazio
pintura
Pintura
orokorrean

PINTURAS DEL BIDASOA

Lukas Sansiñena Tel: 656 701305 • 948 630512
Ziburu KARRIKA 4 - 4. esk • BERA

Juan Luis Otxoteko PINTOREA
Kampo eta barnealdeak
Bilutua 24 - 3ºB - 31770 Lesaka Harrota
Tel - Fax: 948 637902
Mòbil: 678 993818
Eskatu aurrekontua loturarik gabe

MERYT Materialak

BERAN
ERAIKUNTZAREN
BILTEGI OROKORRA

Ubela industrialdea
☎ 948 631 201 - BERA

Jagoba Irisarri Elizagoien

ITURGINTZA LANAK

ORMIGOI ZULAKETA

659 401 555

948 635 182
Lakatenekoborda • ETXALAR

ETXEPAIRE ANAIK
eraikuntzak



Zaharberritzeak

948 637 431 • 608 576504
Bittiria, 22 • 31.770 LESAKA

Iñaki OLAIZOLA

Elektrizitatea orokorrean
Muntaia elektrikoak
Alarmak

948 637 405 - 670 417 499
Bittiria 39 - LESAKA



BEXUEN

25 metro goratzen
den garabia
Kabrestantea
urrutiko agintearekin

Tel: 670 974 025
667 418 661

Energia berriztagarriak

Guillermo REMESAR
GARBITEK - IRUN

Ekonomia aldetik begiraturaz, gaur egun duten garapenarekin eguzki eta haize energiak dira alternatiba errentagarrienak, sistema-sorgailuek duten bizi erabilgarri luzea kontuan hartuz. Iku-si, bada, aprobetxatzeko moduak:

- Inbertsio amortizagarria: eguzki-energia instalazioaren errentagarritasunik onena, argindarraren sareari lotura fotovoltaikoa eginez lortzen da. Produktutako kwh (kilowatio orduko) bakoitzeko legez 0,40 euro (66 Pta) jasoko dituzu, sarean kontsumitzen duzun kwh bakoitza ordaintzen duzuna baino lau aldiz gehiago. Alde honekin, eta administrazioak eskaintzen dituen dirulaguntzekin, hamar urtez inbertsioa berreskuratzen ahal duzu eta panel fotovoltaiko batek 35 urteko biziraupena du. Zuk erabakitzen duzu inbertitu beharreko dirua. Bakar bakarrik, gehienez 30°ko desbideraketarekin, hegoaldera ematen duen lekua behar da -teilatua, terraza, fatxada, lur eremua...-.

- Zure etxebizitza sare elektrikoetik urrun baldin bada: ekonomia-aren eta bizi kalitatearen ikuspegitik begiraturata, aukerarik interesgarriena eguzki elektrizitatea da (haizearekin konbinatuta, egunero erabiltzen den etxebizitza baldin bada). Hasierako inbertsioa handiagoa den arren (beharren arabera aldatzen ahal da), eguzki instalazioarekin hainbat kontu aurretzuko dituzu: argindar sarera lotzea, arazoak ematen dituzte multzo elektrogenero gogaikarriak eta hilabeteroko fakturak.



Haize energia
bertze energia
berriztagarri
garrantzitsua da,
haizeak auniztan, eta
ez nahitaez gogor
jotzen duen
lekuetarako.
Eguzki energiaren
aprobetxamendu
ezaugarri beretsuak
ditu.



PATXIKU

garraio - eskabazioak

Tel: 670 974025

tipi
ttapa



948 63 11 88



Panel fotovoltaiko batek 35 urteko biziraupena du. Hamar urtez egingako inbertsioa amortizatzen da.

- Garbitzeko-ura berotzeko:

Eguzki energia termikoa da aukerarik errentagarriena. Inbertsioa zazpi urtez berreskuratzen ahal da. Ur beroa gasaren edo gasoleoaren bidez lortzen baduzu eta eguzki energia termikora aldatuz, inbertsioa zortzi edo hamar urtez amortizatuko duzu (gaur egun erregaiek duten prezioetan), baina kontuan hartu behar da sistema-
ren biziraupen erabilgarriak hogei urte aisa gainditzen dituela.

- Eguzki energiaren bertze erabilpenak:

Ura ateratzeko eta altxatzeko eguzki ponpa. Artzain elektrikoak. Borda, etxola, karabana eta gisakoen argiztapena. Telekomunikazioak, seinalizazio balizak. Eguzki farola autonomoak, pasealeku, hilerri, baseliza, lorategi, baserri inguru, haur parke eta gisakoen argiztapen publikorako.

Aparteko aipamena merezi dute barneko eta kanpoko igerilekuen, pribatu nahiz publikoen, klimatizazioak. Bainurako denboraldia luzatzen ahal da horrela.

HAIZE ENERGIA: Bertze energia berriztagarri garrantzitsua da haizea, eta ez nahitaez gogor jotzen duen erremietarako. Eguzki energiaren aprobetxamendu berdintsuak ditu, adibidez, ura haize-ponpen bidez ateratzeko aukera.

UR ENERGIA: Ur korrante edo saltoak elektrizitatea sortzeko aprobetxatzea da Bertze berriztagarriek eskaintzen ez duten aukera bada gure zonaldean, merkatuan potentzia ttikiko mikroturbinak erosten ahal baitira, 230Vkoak zuzenean, bai ur-ema-
rirako edo saltorako, instalatzeko hargitz errazak.

ONDORIOA: Eguzki energia errentagarria da ikuspuntu guztietatik, bai partikularrendako baita herriendako ere. Bakar-bakarrak energia berriztagarriek orokorrean segurtatzen ditugute gure energia premia betetzea, etorkizuneko belaunaldien bizimodua hipotekatu gabe. Gainera, ezin dira monopolizatu.

GARBITEK 

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Eguzki energia fotoboltaika eta termikoa Igerilekuen berokuntza
Haize Energia, Mikrohidraulika, etab...
Kontsumo baxuko berogailu elektrikoak
Vega de Eguzkiza, 29 behea **IRUN**
Tel eta Faxe. **943 63 55 82**

Xm Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Xabier martinikorena

948 610 678 • 699 659 526 • LEITZA

Pladurrezko sabai eta tabikeak
Isolamendu termiko akustikoak
Ebre moldatzetan espezializatuak
Apalategiak
Sabai desmuntagarriak

Angel TRANTXE
elektrizista



Instalazio elektrikoak
Konponketak

Tfnoa.: 948 452 246
Mug.: 679 454 113
ELIZONDO



ZUREZKO EGITURA ETA TEILATUAK ESKUZ EGITEN DITUGU

ETXEBIZITZEN PROIEKTUAK

ZYRGAI

Iturlandeta 6 BERA (31780) tel. eta fax: 948 625409

saneamientos
Gare

• Gas instalazioak • Berogailu instalazioak •
• Komuneko altzariak •

Kanttoanberri 10, BERA tel: 948 631 107
gare@arrakia.es sabeleho: 608 976 034



Miguel Oiartzabal Telletxea

EXKABAZIOAK

Gure Ametsa 41 • DONEZTEBE
Sakeleko tel.: 608978210



Juanotena
zurgindegia

Ateak • Eskailerak • Leihoak

Zurgin lanak orokorrean

Leitzako bidea • © 948 450211 • **DONEZTEBE**



SUMINISTROS YANCI

- Iturgintza eta kalefakzio materialaren salmenta
- Iturgintza instalazioak
- Gas eta gasoil berogailuak
- Erregailuen moldaketa eta mantenimendua
- Moble osagarriak eta bainurako manparak



Zaldubia Poligonoa - **IRURITA**
Tel.: 948 58 01 09 • 948 45 24 64

Egurrezko sukaldeak eta tximiniak

Arantxa EZKURRA
MENDI-TXURI

Hotzak etorri dira eta urtero bezala garai honetan kalefakzioa pizten hasiak gara. Denoi egurrak sortzen duen beroa gustatzen zaigu gehiago, erosogoa eta goxoagoa baita.

Pentsatzen dut oraindik baserri aunitz izanen direla lurreko sua eta egurrezko sukaldea berotzeko eta sukaldatzeko erabiltzen dituztenak. Euskaldunen bizimoduan oinarritzkoa izan da sua eta ezinezkoa ematen du urtero-urtero baserrietako familia bilkurak edo otorduak laguntzen egon den berotasun hori gabe bizitzea.

Gauregun, lurreko suak, estufak eta egurrezko sukaldeak landuagoak dira, babestuagoak heldu dira. Beraz, gehiago berotzen dute, egur gutxiago errez, eta aldi berean ekologikoagoak dira, ingurumena guttiago kontaminatzen dutelako.

Lurreko suari *kutxa* (aitzinaldean kristala duen kutxa) jartzea gomendatzen dute. Baditugu biauhera, bentiladorearekin edo gabe. Sistema sanoa eta garbia da, oraingoan su-zinpartek eta ekeak ez dute gure egongela zikinduko, aldi berean egonaldi atsegina izanen dugu sua kristalaren bitartez ikusiko dugulako.






JUAN MARI ALEMÁN - PATXI VALER
APARAILARIAK
 Obra zuzendaritzak
 Lur neurketak...
 Doctor Balda Plaza 1, 1. A • ELIZONDO



- Bernizatze-kabina
- Pintura lanak orokorrean

Leitzako bidea
 ☎ 948 450734 • 606 377424
 DONEZTEBE

Lehen burdinurtuarekin egina izaten zen egurrezko sukaldearen gaineko txapa. Orain, egurrez berotzen den bitrozeramika plaka izan ohi da, kozinatzeke ezin hobea eta garbitzeko errexa. Ez da herdoiltzen.

Egurrezko sukaldeak

Egurrezko sukaldeak ekologikoki ere ongi babestuak daude. Azken urteotako berritasuna ere bada: lehen burdinurtuarekin egina zegoen gaineko txapa, orain egurrez berotzen den plaka bitrozeramikoak daude. Kozinatzeke ezin hobea, eta garbitzeko errexa. Ez da herdoiltzen, beraz, beti garbigarbia dago.

Estufetan aukera ezin hobea dago txapa eta burdinean, labearekin edo laberik gabekoak. Konbustio bikoitzeko sistemarekin, eke garbiagoa ateratzea lortzen du, gure ingurua gutiago kontaminatuz. Eta gure ingurua da onena, doike, eta garrantzitsuen gure bizimoduan. ♦



GONZALO FERNANDEZ LAMANA eta A. T., S. CV.
 Injineru tekniko industrialia

- Bulego teknikoak: proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
- Instalazio elektrikoa
- Etxeko eta industriako elektrizitatea
- Enpresen mantenimendua, etab...

Elizagibela, 5 • Tel-Fax: 948 450760 • DONEZTEBE

ERAIKUNTZA MAKINA ETA ZERBITZUEN ALOKAIKUA



- Garbiketarak hondar-zorrotadaren bidez
- Materialen garraioa
- Mailu, elektrizitate-sorgailuak, andamio eta konpresorak

Leitzako bidea • ☎ 948 451793-659 702694 • DONEZTEBE



- Etxegintza eta burdindegi materialak
- Zeramikak: Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato
- Teila frantsesak: Guiraud, TBF
- Egurrezko sukaldeak
- Tximiniak

☎ 948 450305
 ☎ 948 450068
 DONEZTEBE



Marmoles Alkaiaga

Marmola eta granittoa guztien eskura

Susana VELEZ

Marmoles Alkaiaga

Marmoles Bidasoa izenarekin sortua eta hasiera batean, Zalaingo industrialdean, Beran, kokatua, enpresa honek hamahiru urte baino gehiago daramazki, harri naturalen produktu ezberdinak lantzeko artea garatzen.

Bere oinarritzko lehengaiak marmola eta granittoa dira.

Material hauek, garai batean luxuzko produktuak zirenak, gaur egun edozein sakelaren neurrira daude. Bere ezaugarriak eta eskaintzen duten kolore aukera zabalari esker, gaur egun marmolarekin eta granitoarekin produktu ezberdin ugari egiten dira, bai enpresa handiek erabiliak (paretak estaltzeko, etxebizitza, bulego edo zentru komertzialen zolarako, arkitektura lanetarako orokorrean...) baita partikularrek ere (sukalde eta bainuko entzimerak, hileta-arteak, dekorazio artikulak, mahaiak, etab...)

Marmoles Bidasoak, gaur egun Marmoles Alkaiagak, marmolaren eta granitoren bilakaera industrialean ere parte hartu du. Duela pare bat urte Alkaiagako industrialde berrian kokatu zen, eta hortik hartu du izen berria. Handik, bezero guztien eskura, hau da enpresa eta partikularren eskura, bere artea eta lana ongi egiteko trebezia uzten du, tratu goxo eta pertsonalizatuarekin. Harri naturalaren luxua guztien eskura dauden prezioekin uztartuta eskaintzeko helburua mantentzen du. ♦



- Marmola eta granitoarekin edozein lan
- Sukalde eta komunetarako entzimerak
- Faxoak
- Hilari tanak
- Inskripzioak
- Eskalerrak



**MARMOLES
ALKAIAGA, S.L.**

Alkaiaga industrialdea
Ziobi kalea, 11 (sarrera Beratik)
Tfnua eta faxa: 948 631215
Mobila: 609207731
31879 LESAKA (Nafarroa)



zurgindegia

ateak • leihoak • tarimak
Zurgin lan guziak

☎ 948 510402 • 609 067123
Goiko Errota • LEITZA



**tupi
t'apa**



948 63 11 88

Egongelak Lasaitasun iturri

Egongelari leku gehiago ematea eta eroso eta goxoagoa bihurtzea erraza da. Horretarako, gelaren arabera altzariak aukeratu eta ongi banatu behar dira eta iluminazioa ere ongi planifikatu behar da.

Egongelan pasatzen dugu aisialdiaren denborarik gehien eta hortxe hartzen ditugu senide edo lagunak bisitatu. Beraz, edozein momentuan gozatzeko dela pentsatu behar dugu: atsedean hartzeko, irakurtzeko, telebista ikusteko edo lagunak gonbidatzeko. Espazioa aprobetxatuko duen banaketa eroso egitea garrantzitsua da. Egongelaren forma edozein izanda ere –normalean laukiak,

lauki luzeak edo L formakoak dira– egongela lekuri argienean jarri behar da, leiho eta balkoietatik hurbil, baina atea eta kanporako aterabideak traba gabe. Altzari arin eta baxuak aukeratu, argiari oztoporik ez jartzeko. Altzariak jartzekoan, handienak –besaulkiak edo liburutegia, adibidez– paretaren kontra jartzea da onena. Duzun lekuaren arabera, besaulkiak L edo U forman banatu. U banaketa gomendagarriagoa da egongela zabaltan eta L banaketarekin leku ttikia hobeki aprobetxatzen da.

Besaulki bat baino gehiago jartzekotan, hauek berdinak edo neurri berdintsukoak izatea gomene da, beti ere ondo-



an mahaitxo bat jartzeko leku uztea komeni da.

Iluminazioa planifikatzekoan kontuan hartu behar duzu egongelari ematen zaizkion erabilera ezberdinak. Honela, lanpara ezberdinak konbinatu behar dira. Argi orokor goxo eta itzalik gabekoa lortzeko, 300 wkozutikako lanpara erregulagarri bat baino gehiago ja-

rri behar da. Hau osatzeko, mahai edo altzari gaineko lanparak paratuko ditugu, linuzko, pergaminoak edo kristalezko pantailekin. Irakurketarako lekuan ere bertze lanpara edo flexo bat jartzen ahal duzu. Telebista egongelan baldin baduzu, bere ondoan lanpara goxo bat paratu, baina ez dezala pantailan argirik isladatu. ♦



MUEBLES

Telletxea

Rosa Seminano z/g Tfnoa: 948 450 258 DONEZTEBE

Leihoak Zein dira material erabiliak?


Richard **ALTZUGUREN**
BETIKO

Bertze urte batez zuei zuzentzeko aukera eskaintzen digutela aprobetxatuz, leihoen merkatuaren azken joerei buruz aritzea gustatuko litzaiguke.


Seguruaski behin baino gehiagotan pentsatu izanen duzue jarri beharreko leiholari buruz, zein materialekoa. Hori argitzen laguntzeko, materiale ezberdinak erakutsi eta merkatuko joera aipatuko dizuegu.

Sektore honetan erabiltzen diren materialak lau dira: PVC, aluminio, zura eta konbinazio ezberdinak (aluminio.zura...). Europako merkatutik abiatzen baldin bagara, ikusten ahal dugu PVCa dela materialik erabiliena, %39,4arekin, gero

aluminioa, %29,2, zura %27,1 eta azkenik konbinazioak, %4,3 hutsarekin.



Baina herrialdeka banatzen baldin badugu, nabari da klimatologiaren arabera dextente aldatzen dela, hau da, herrialde hotz eta hezetan PVCaren kontsumoa aunitz igotzen da eta herrialde beroago eta idorra goetan aluminioaren kontsumoa igotzen da.



www.alkain.com



**ZERAMIKA
ETA BAINUEN
ERAKUSKETARIK
IKUSGARRIENA**
EUSKAL HERRIKO PREZIORIK NOBERENAK

alkain
zeramika eta bainuak

TRUN eta HONDARRIBIA artean
(aeroportu ondoan) Mendelu Poligonoa
Tfnos: 943 64 52 54 / Faxa: 943 64 58 55
Astelehen-Ostirala: 09:30 - 12:30 / 14:30 - 19:30
Larunbaitan: 09:00 - 12:30



Espainiako merkatuari dagokionez, joera berdintsua ikusten ahal da, hegoaldean materialerik erabiliena aluminioa da, baina iparraldera joz, nahiz eta aluminioa erabiliena izaten segitu, PVCak eta zurak ere merkatu zati handia hartzen dute.

Zein dira azkeneko joerak?

Gehien erabiltzen diren materialak eta hartzen duten merkatu-zatia ikusi ditugu,

baina material hauek eskaintzen duten bilakaera eta etorkizuneko espektatibak aztertuko ditugu. Azkeneko grafikoa ageri denez, lau multzoek bilakaera positiboa izan dute, baina denetik aipagarriena PVCarena da, %121,1eko igoerarekin, berteak baino hagitzen handiagoa. Honela, leihoen merkatuak berte urtetako joerarekin segitzen du, eta etorkizun onena duen sektoretako bat beza-

la agertzen da, bi material nagusirekin: PVCa (gehien indartzen ari den materiala) eta aluminioa. Azkenik, gogorarazi nahi dizuegu gure lehen helburu profesionala gure lanaren bitartez zuen konfidantza irabaztea dela. Edozein zalantza baduzue edo aholkua bilatzen baduzue, zuen erranetara gaude. BETIKO PVC eta aluminiozko aroztégia osatzen dugunon agur beroa jaso. ♦

Betiko
Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59

4 arrazoi on PVC jartzeko

- Kalefakzioan % 35a ahorratzen duzu**
- ISOLAMENDUA**
Ez du pintura beharrik
- MANTENU ERREXA**
Ur eta haizeaz babesteko, baita ere soinetatik
- HERMETIKOTASUNA**
Denborak ez du aldarazten
- IRAUNKORTASUNA**

Etxe berrietan eta zaharretan. Edozein itxiera, balkoi, leiho, atari... Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

BETIKOn kolore ugari ditugu, baita egur koloreak ere (haritza, kaoba, pinua etab.). Eta edozein etxe estilora egokitzen direnak.

Eskatu aurrekontua loturirik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu



Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA SANEAMENDU MATERIALAK

© 948 580 104 / 948 580 366 • ELIZONDO



↓ Zeramikak



↓ Velux-ak



↓ Tximiniak



ATEAK ETA LEIHOAK

LEIHATE

**GAZTAÑAGA
HERMANOS, S.L.**



- Etxebizitzen zaharberritzea
- Barneko ateak
- Segurtasun ateak
- Armairu enpotratuak
- Tarimak

Biteri 48 Tel. 943 514 062 • ERRETERIA

Tailerra: Gabiria 1 Tel. 943 635 669 • IRUN


Maestro Santesteban 2 (Irungo Plaza) Tel. 943 469 622 • DONOSTIA

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

*Opariak eta apaingarriak,
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak.*

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

SASOI

Leku-Eder, 4 / 1.D • Tel.: 948 45 15 96
31791 SUNBILLA (Nafarroa)

Telefona:

667 424 635

ESKABAZIO ETA GARRAIOAK



- **LUR MUGITZEAK**
- **LUR ZANPATZEAK**
- **LUR BERDINKETAK**
- **URBANIZAZIOAK**
- **KANALIZAZIOAK**
- **GARRAIOAK**

EGUBERRITAKO EROSKETAK



GOZOTEGIA
URREKIN EGINA
ETXEKO TURROIA ETA
MAZAPANAK

948 580 061
ELIZONDO



IPARLA
kirolak

Mendiko materiala
Kirol oinetakoak
Txandalak

Santiago, 51 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 585



LURRINDEGIA
APAINDEGIA

Opariak
Bixiak
Gazteentzako osagarriak

Batez eguberritako jare opariaren bila, harrituta geratuko gara!

Amaya

Ameztiak karrika, z/g - DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 163

JUAN J. PIKABEA
GIZONEZKOEN ARROPADENDA



- Arropa konfekzioak
- Gizonendako jostugintza
- Egindako trajetan aukera zabala
- Galtza bakeroak 70 taila bitarte.
- Atorrak 54 taila bitarte.

Ameztiak z/g • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 451 670



KOLOK
menaje denda

• SUKALDE ETA MAHAIRAKO
TRESNERIA
• OPARIAK

Hondarribia 4 • IRUN
Tfnoa: 943 615 622



TOUT POUR LA FETE

- Jaiotzak.
- Eguberritako zuhaitzak eta dekorazioak.
- Baserritar jantziak.
- Ihauteriak.
- Kotiloiak.
- Su artifizialak

Rue de la Gare 13 • 64700 HENDAIA
Tfnoa: 05 59 48 37 58



*Janzkera
Lentzeria
Etxebarnea*



Plaza Zaharra, 14 • LESAKA
© 948 637 721

KATEA-BIKE

BIZIKLETEN
salmenta eta konponketa

Kanttonberri, 1
BERA
948 631218



Eguberri on!!



edurne
HAUR ARROPADENDA

txandalak
pijamak
opariak
galtzak



Altzate 30 - BERA - Tfnoa: 948 630 606

LEITZA

Maxurrenea aldarrikatuz

Kultur Etxea edo kirol museoa egitea eskatu dute hainbat taldek

Mikel ILLARREGI

Aspaldi honetan, Maxurrenari buruzko informazioa, nobela baten kapituloak azaltzen ditugu. Beti bada "zerbait". Azkenekoa, joan den igandean "Maxurrenea, herriaren nahia errespetatu" lelopean ospatutako aldarrikapen pesta. Hau idatzi dugu hau burutu aurretik eta horregatik ez dakigu zer nolako eguna atera zen. Hala ere, egitarauari begiratuz gero, egun arrakastatsua gerta zela esan daiteke; pilota partidua, dantzariak, marrazketa tailerra, kalejira, kale animazioa, mus txapelketa, herri kirolak (Perurenatarrak, Mieltxo Saralegi eta herriko gazteak), kantariak... eta "Maxurrenea, Kultur-etxea" Batzordeak, herriko 38 taldeen eta 1500 sinaduren izenean, kaleratutako idatziaren irakurketa. Honetan, herrian dauden kultur gabeziak betetzeko, koartela baino ho-

bea ikusten dutela Maxurrenea kultur etxea edota kirol museoa osatzeko.

Hau guztia azaldu asmoz, alde aurretik prentsaurrekoa burutu zen eta bertara, ehun bat lagun hurbildu ziren. Denak aipatzea luze gertatuko denez, mahai inguruan eseri zirenak aipatuko ditugu besteak gutxiagotu gabe, noski; Juan Jesus Larraz ginekologoa, Brigida Azpiroz parrokiako kontseilukoa, institutoko irakaslea, Kristina Urrutia, Itziar Alduntzin eta Josex Lizartza kazetariak, Gabriel Saralegi eta Patxi Astibia aizkolari ohiak, Iñaki Perurena harrijasotzailea eta Joaquin Lasarte bertako auzoa.

Mendi martxa eta manifestazioa

Duela bi aste Nafarroako zenbait tokitan militarrek egin zituzten "maniobrei" ezadosta-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Herrian dauden kultur gabeziak betetzeko, Maxurrenea kultur etxea edota kirol museoa osatzea eskatu dute herriko hainbat talde eta bizilagunek.

suna azaltzeko asmoz, mendi martxa eta manifestazioa burutu ziren herrian.

Torrea

Herriko udalean alkatetza duen erakunde politikoa legez kanpo uztea eta Torrearen elkarteari diru kontuak enbargatu eta lehen solairua itxi dutelako prentsaurreko bat eskeini zuten herriko plazan. Hogeitahamar herriko taldek babesturik zera eskatzen zuten; lehenik Euskal Herriko indar politiko guztiek bizitza politikoan normaltasunez parte hartzeko duten eskubidea aitortzea eta bi-

garrenik, «Torrea» elkarteak bere baliabideak normaltasunez erabili ahal izatea.

Basozaina

Basozain lanpostua betetzeko oposiziolehiaketa deialdia luzatu du udalak. Hau, lan kontratu finko moduan bete nahi da. Izendatua suertatzen denak Leitzan izan beharko du bizilekua. Beste batzuren artean, gidatzeko karneta izan behar du, B1 motakoa. Izena emateko epea abenduaren 13an izanen da udal bulegoetan. Informazio gehiago nahi duenak udaletxean bertan edo-

ta Nafarroako aldzikari Ofizialaren 137. zenbakian, azaroaren 13koan hain zuzen.

Pilota goxoa txapelketa

Nafarroa Garaiko helduen mailako lehiaketa martxan da jada. Hauek Sunbillan, Etxarri Aranatzan eta Leitzan jokatu dira. Leitzari dagokionez, lau dirazena eman duten bikoteak; Mariñelarena anaiak, Aldaia eta Olano, Mariñelarena eta Barandarain eta Aranburu anaiak. Lehen faseko partidak azaroaren 23tik ilbeltzaren 4a bitarte jokatu dira.

MENDI IRTEERA

Mendibil taldearen hiru eguneko ateraldia eta beste ekitaldiak prest

Azaroan mendi irteera egitea zaila gertatu denez, beste era bateko irteera antolatzea erabaki dute. Hau, Linzatik Belaguara izanen da eta hiru egunekoa. Linzako aterpean erre-

serbatu dira lotarako tokiak eta otorduak.

Federatu txartelak ere abenduan egingen dira, kaleko karteletan aipatutako egun horietan. Egun horietan egiten ez duenak, bere aldetik

egin beharko du.

Mendiko materiala erosi dutenez (kanproiak, soka, eskaladarako materiala,...), nahi duenak eska dezakeela adierazi die bertako kide direnei Mendibil Taldeko batzordeak, etxetara igorritako gutunean.

LEITZA AHOLKULARITZA
 Uharteko Gotzain 6, 2.Ezk. LEITZA (Nafarroa)
TI. 948 203730 - 639 869312
 LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA
 KONTABILITATEA
 FISKALITATEA
 IVA, IRPF
 AUTONOMOAK
 NOMINAK, KONTRATUAK
Orain Leitzan

BAZTAN

Zozaiako Jauregiaren kanpoaldeko moldaketa lanak akitu dira

Jabeak moldatuko du barneko aldetik XVI. mendeko eraikuntza

ttipi-ttapa

1995eko apirilaren 3ko goizaldean sute batek kixkali zuen Zozaiako Jauregia. Zaharberritze lan handien ondoren, azaroaren 18an berriz ere ireki zen. Inaugurazio ekitaldian, Oronoz-Mugairiko alkatearekin batera, Baztango udaleko, Nafarroako Gobernuko eta Principe de Viana erakunde-ko ordezkariak izan ziren.

Barnealdetik egiteko aunitz gelditzen da oraindik (horretaz, Martin Oharriz Martikorena jabea arduratuko da), baina kanpoaldetik itxura ederra hartu du Jauregiak. Principe de Vianak bere osotasunean ordaindu ditu lanak eta zura Balleko Udalak paratu du. Moldaketa lanak Iruñeko Zubillaga eraikuntza enpresak egin ditu. Hasieran 59,4 milioi pezetatan eman ziren, baina gauza bat dela eta bertzea dela, 69 milioitara ailegatu da. Moldaketa lanak 2000.



1995eko apirilean sute batek kixkali zuen Zozaiako Jauregia. Kasik 70 milioi pezetako inbertsioa egin da moldaketa lanetan eta azaroaren 18an inauguratu zuten berriz. Orain, barnetik moldatzea falta da.

urteko ilbeltzean hasi ziren. Eraikuntza XVI. mendean egin zen eta Nafarroako ondare historikoaren zati bat da, Baztanen eraikitako lehendabiziko dorretxetarikoa bat baita. Erakunde ofizialez gain, bizilagunek ere 18.030 euro (3 milioi pezeta) eman zituzten sutearen on-

dotik. Arkitektuek jakinarazi zutenenez, barneko zurajea mantendu da eta «egoera ezin hobetuan dago». Jauregiak egitura laukia du eta 12 metroko altuera. Lau ixkinetan dorretxo bana du. Zaharberritze lanetan bertako harria eta sute-tik onik atera zena erabili da.

Igerileku estalia

Elizondoko igerileku estalien proiektua Baztango alkatearen kalitate botuarekin onartu zen. UPNk kontrako botua eman zuen, «arkitektuak lana berari eman baino lehen proiektua egina zuelako». Iruñeko Torrecilla enpresak egiten ditu lanak.



PERTSONAIA

Begoña SANZBERRO

Saria Nafarroako urteko emakume enpresariari

Almandozko Beheiti-koetxe Begoña Sanzberrok irabazi du Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak urteko enpresari onenari emandako saria. Sariak astearte honetan eman ziren Gorraizko Jauregian. Epaimahaiaren arabera, «baserria garatzeaz gain, familia zaintzen eta hezten jakin izan du». Begoñaren erranetan, sari hauek (gan den urtean, norber kabuz ari den emakume langilearen saria irabazi zuen) ez lirateke posible izanen bere amaren eta bere senarraren laguntzarik gabe. UAGN sindikatuko kidea eta Nekazaritza Ganbarako lehendakariordea da Sanzberro, «ez baitakit nire inguruan gertatzen diren aferetatik kanpo gelditzen».



**BAZTAN
FUNERARIA**
Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

**HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK**

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• © 948 580373 • 608 776176



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN

Benito Menni ospitaleko langileak komenio duinaren aldeko greban

Afera moldatzen ez bada, abenduaren 9tik aitzin mugagabea litzateke

ttipi-ttapa

Elizondoko Benito Menni ospitaleko langileek greba egin dute azaroaren 22, 25 eta 27an, enpresako zuzendaritzak egindako komeniko kolektiborako eskaintza «*arras pobrea delako, zentruaren egoera onera ez baita egokitzen*». Afera moldatzen ez bada, abenduaren 9tik aitzin mugagabea izanen litzateke greba, komenio duinaren alde.

Ehun bat langile ari dira ospitalean, emakumeak gehienak eta ELA sindikatuak 9 delegatu ditu. Gan den urtean, soldatak IPCa baino puntu bat gehiago igo eta lan orduak 20 ordu-tan murriztu ziren. 2002, 2003 eta 2004 urtetarako enpresak IPC+0,2 igoera bertzerik ez du eskaintzen eta urteko 7 lan ordu murriztea. Langileen batzordeak, aldiz, IPC+1,1eko igoera soldatetan eta hiru urtetarako 45 lan ordu murriztea eskatzen du.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Aniz eta Zigan grabatu dituzte «Lepokoa» labumetrairenen irudiak. Bidasoako filme laburren Zinemaldian Brontzeko Iratzea lortu zuen Safy Nebbou da filme honen zuzendaria. Joseba Apaolaza eta Pilar Rodriguez, berriz, aktore nagusiak.

Ornoz-Mugairin Polizia Foralaren komisaldegia jartzeko asmoa dago

Nafarroako Gobernuak Polizia Foralaren komisaldegia Oronoz-Mugairin jartzeko aukera aztertzen ari da, Rafael Gurrea presidentzia kontseilariak Florentino Goñiri bilera ez ofizial batean erranzionez. De-

na den, 2003 eta 2004. urteetan ez litzateke inbertsiorik eginen, beraz lanak hemendik hiru urtera hasiko lirateke. Nafarroako Gobernuak 22.000 metro koadroko lur-eremu egokia du ho-

retarako, kamineroen etxea eta Bidasoa erre-karen artean.

Duela urtebete baino gehiago eremu berean igerilekua egiteko asmoa azaldu zuen Florentino Goñik. Bere ustez, «*bi proiektuak bateagarriak dira eta egitea gustatuko litzaidake, herriak bisitari aunitz hartzen baititu*».

FLASH

29.450 euro herrialde pobreendako

Herrialde pobreenei dirulaguntza emateko Balleko Udalak aurrekontuan dituen 29.450 euroak erakunde eta pertsona hauen artean honela banatu dira aurten: **Honek**, 2.146,47 €; **Inpru**, 1.966,22 €; **Martin Corazzin**, 3.198,24 €; **Felipe Santiesteban**, 5.151,53 €; **Joaquina Aleman**, 3.649,41 €; **Udalen Federazioa**, 5.752,54 €; **Euskal Fundoa**, 5.752,54 € eta **Milagros Urrutia**, 1.803,06 €.

Ornozko eliza

Andra Mari eliza berri-etu eta berriz ere zabaldu dute Oronoz-Mugairin. Lanen aurrekontua 20.683 eurokoa izan da eta 14.830 herrian eta herrikanpo bizi diren bizilagunek ordaindu dute. Herriko familia bakoitzak 50 euro eman ditu. Auzolanean aritu dira eta itaxurak moldatzeaz gain, teilatua moldatu, barnealdea pintatu eta bi irudi berri paratu dira.

Jorge Oteiza

Museo Etnografikoa finantzatzeko hitzarmena sinatu zuten azaroaren 19an Balleko Udalak eta Gobernuak.

SOULE
Hileta artea
 © 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

JATETXEA
 © 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea
 Jatetxea - Ostatua
 Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
 Braulio Iriarte
 ELIZONDO
 © 948 581807 • 948 581853

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
 © 948581468 • 948580433
 Frantziarako etorb. 12 •
 Ameztialde 3B • **ELBETE**

MENDIALDE
Jatetxea

 AMAIUR • © 948453060

MENDI
OSTATUA
 Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

SENPERE



Eguberriko lehen euskal merkatua ospatuko da abenduaren 14an

Senpertar bi idazle ohoratu dituzte Peio eta Pantxok

Franck DOLOSOR

Abenduaren 14an, eguberriko lehen euskal artisau feria ospatuko da karrikako errebotean plantatuko den oihal etxe baten azpian. Goizeko 10etarik arratsaldeko 6ak arte, hongoi bat artisauk beren lanak erakutsiko dituzte. Azoka musikatua izanen da txalapartariak etorriko direlaketz. Janari eta edatekoak Zaldubi Ikastolako burasoenek prestatuko dituzte. Herriko etxearen baimenarekin ospatuko den gisa huntako lehen artisau feria huntan Olentzerok bere saskia betetzen ahalko du ondoko egunetan gure etxeetarik pasatzeko!

Peio eta Pantxo

Herriko bi idazle ohoratu nahi izan ditu Peio eta Pantxo kantari bikoteak. "Lapurdiko kobleriak" azken diskan, bi senpertarren testuak musikatuko dituzte Mixel Ducauren laguntzarekin. Alde batetik, Gratien Adema Zaldubiren "Xuriko" eta bertzetik Ganix Halsoueten "Ene maitea xarmagarria" kantuak entzun daitezke Elkarlanean-ek plazaratu duen lan berri huntan.



STUDIO DE LA NIVELLE

Aurten 50 eta 60 urte betetzen dituzten senpertarrek afari bana izan zuten azilaren 9 eta 11an. Ibarrungo Bonetegia eta Arozena jatetxea oroitzapen frangoren bil-toki izan ziren.

© 948 63 1462
Altzate I • BERA

TEL K MISET K ISE K TXISKE K

N HI UZUNK U U, NEU I ET ISEINU ERKA

Ezt r z h T l- F x 3 15 21

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE SARA • TEL 0559542519

ZJ

Zalain jatetxea

948 63 10 03

Bera - Nafarroa

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA

Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago

☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, MOSKITERAK eta VENECIANAK

616 513 497

Pitti

ESKABAZIOAK

C/Amelia, 1

3010 DONOSTIA (NAFARRUA)

SARA

Herriko elkarte eta eskolek Telethon-a antolatu dute aurten ere

Abenduaren 6an eta 7an homeopatiari aurre egiteko dirua bilduko da

Xan HARRIAGUE

Duela zombait urtez geroztik egiten den bezala, aurten ere Sarako elkarteek eta eskolek antolatuko dute Telethona abenduaren 6an eta 7an. Egun horietan biltzen diren diru laguntza guztiak erabiliak dira eritasunaren kontrako ikerketak aitzinarazteko. Ortziraleko eguna, haurrentzat izanen da. Proposatua izanen da oren bat edo oren bat eta erdiko ibilaldi bat diruz lagundu beharko dena eta arratsaldeko 2etan hasiko dena. Helzetean krakada eskainia izanen zaie haur guzietan. Larunbatean arratsaldeko 3etatik 5ak arte Larungo trenak parte harzaile guztiak upatuko ditu, horren ondotik 5:30etan, xirio bat emana izanen zaie eta gain beheiti hasten ahalko dira, iduzkia gordetzen hasiko delarik. Ibilaldi horrek 10 euro balioko ditu eta den dena Telethonari emana izanen zaio. Izenak eman beharko dira sa-



ARTXIBOKOA

Oroitarazten dizuegu plekako pala txapelketan izen emaitzak abenduaren 4a arte egiten ahal direla. Argazkian duela bi urteko finalistak.

rako Turismo Bulegoan abenduaren 5etik aitzin. Eguna bukatzeko aperi-tifa izanen da San Iñazio lepoan eta 8etatik aitzina Le Pullmanek eskainiko ditu afariak 12 eurotan helduentzat eta 6 eurotan haurrentzat, horko irabazi guztiak Telethonentzat izanen dira ere. Beraz asteburu hori erreserbatu eta johan Larrun aldera itzuli baten egitera. Zuen eskaintzak egiteko diru kurtak atsematen ahalko dituzue Postan ortziral eta larunbat goizean eta San Iñazioko lepoan larunbat arratsaldean.

Errubia

Sarakotaldea Amurra joan zen azilaren 9an, bainan handik gustu samin batekin itzuli ziren. Garaipeneko 3 puntuak sakelean zituztelarik azken minutuan 80 metroko entsegu bat hartu zuten eta horren ondorioz galdu zuten 16 eta 10. Azilaren 16an, matxik ez zuten, beraz txapelketa tiki batean parte hartu zuten Donibane Lohitzunen. Usaian Lapurdiko 5 talde aritzen diren bainan aurten Azkain eta Senpere ez ziren hor beraz Saratarak Urruña eta Zi-

bururen kontra lehiatu ziren. Ziburu atera zen txapeldun, Sara bigarren eta Urruña azkena.

Mus Txapelketako emaitzak

Gaztetxeak joan den azilaren 11an mus txapelketa bat antolatu zuten. Garaileak bi kuisinak izan ziren Patrick Sasaki saratarra eta Tete Larronde itsasuarra. Finala jokatu zuten Florent Barnetxe eta Xan Kaikuren kontra. Final tiki irabazi zuten Jean Etxeberry eta Panpi Elordk.

FLASH

Janari bilketa

Janarien bilketa bat egiten da azilaren 11n herriko etxean goizeko 9etatik eguerdi arte.

Euskal presoak Euskal Herrirat


Hilabete guziz bezala, elgarretaratze bat egiten da hilabetearen azken ortziralean 7:30tan.

Esku balona

Helduek, Lonsen kontra galdu zuten 31-10. 14 urte azpiko neskek ere galdu zuten Baigorriren kontra 20-10.

Mus Txapelketa

Eskola publikoak mus txapelketa bat antolatu du. Azilaren 30ean, 6etatik goiti iraganen da Omordian. Edariak, taloak eta ogitartekoak saltzeko izanen dira. Arrats horren irabaziak eskolako haurrentzat izanen dira.



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista
Legia I, behea • BERA • © 948 630652

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoak garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
© 948630155
BERA

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu
pinturak
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

AZKAIN

Errugbi eskolako haurrak Lomu eta Gelesen ikustera joan dira

Azkaingo Garra sortu ondotik, herrian postatuak diren gutunek marrazki berezia izanen dute azalean

Ihintza, Angela eta Eneko
Zelanda Berria eta Frantziaren arteko matxa egunean Azkain, Sara, eta Senpereko haurrak Pariserat gomituak izan ziren Azaroaren 16an. 11 haur eta 3 laguntzailek egin zuten bidaiari. Arratsaldean, torneo batean parte hartu zuten talde haundi batzuekin batera, Agen, Miarritze, eta Parise artean. Torneoan zazpi garren tokia lortu zuten. Miarritzek aldiz lehena.

Arratsean, Frantziako Estadioan matxaren ikustera joan ziren denak. Ohorezko itzulia egin zuten ere publikoentzako, eta instante batez hurbildik ikusten ahal izan zituzten munduko jokolarik hobenetariki batzuek, berotzen ari zirelarik. Argazkiak hartzeko okasionea baliatu zuten noski, eta Jonha Lomu eta François Gelesek izan zuten arrakasta haundiena.

Matxa begiratu ondotik Parisen iragan zuten gaua biharamunean itzultzeko.

Azkaingo Garra sortu da

Posta zerbitzuek, Herriko Etxearen laguntzarekin Azkaingo garra sortu dute. Oraitik aitzina, Azkainen postatuak izanen diren gutunak marrazki berezi bat izanen dute azalean, tinbrearen ondoan. Marrazki hori "flamme" deitzen dute postan, eta egia erran inguruetakoa herri gehienek berena bazuten jadanik. Azkaingoa Françoise Rypaldak egin du eta hortarako herriko lau toki adierazgarri hautatu ditu: Larrun, Ur Hertsiko zubia, Eliza eta Plaza.

Fazeria kontratua aldatu dute

Azaroaren 13an Azkain, Sara, Urruña, Biriari eta Berako auzapezak bildu ziren herriko kontseiluaren gelan Azkainen. Artzainak, laborariak, ihiztariak, denetarik bazen gau hartan mendiko suteen aipatzeko.

Kontratuak ehunka

urte baldin baditu ere, oraikoa zortzigarren artikulu berritu dute. Horri esker lau herrien arteko elkarlana hobetuko dute sute bat gertatuko delarik.

Laster Olenzero

Altxaili, Gemuku eta Martintxo elkarteak eskuz esku ari dira Olenzero ospakizunak antolatzen. Aurten liburuxka bat eta disko bat prestatu dute jendeek kantuak ikas ditzaten. Kantu horien ikasteko gau bat ere izanen da abendu hastapenean.

Olenzero abenduaren 21an jaitsiko dela jakinarazten dute. Haurrentzat Kulki taldea etorriko da ere herri jokoen antolatzeko.

Bolibia Gaua azaroaren 30ean

Bolibiari buruzko arrats bat antolatua izanen da Bil Tokin azaroaren 30ean, larunbat arratsarekin. Lehen partean Gracy aita semeak eta Frederic Lafitten



ARGAZKIA: XABI DÉSSERT

Azkain, Sara eta Senpereko errugbilari gaztetxoek Frantziako Estadioan ikusi zuten Zelanda Berria eta Frantziaren arteko matxa.



Behobi Donosti

Atletismo taldea eta bertze herritar batzuek Behobi Donosti lasterraldian parte hartu zuten. Senperekoekin batera autobusa osatu zuten. Ondotik Petrítegi sagardotegian bukatu zuten eguna.

espedizioaren filma erakutsiko dute. Ondotik 16 Azkaindarren diaporama

ikusten ahalgo da pastiza janez edo trago bat edanez.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

300 m² perfume markarik ezagunenekin
Usain-onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

MARTIKO

DENDA ORDUTEGIA

Asteleheneretik Ortziaralera: 8:00-12:30 eta 14:30-17:00
Abenduko larunbatetan: 9:00-13:00
Tel: 948 625016 • Fax: 948 625036 • BERA



EZKONTZAK

Valeriano Arratxea Apezetxe eta **Miren Arantzazu Sagastibeltza Sagastibeltza**, Iruñita eta Leitzakoa, urriaren 19an.

Antonio Zabala Zestau eta **Ana Maria Alduntzin Baleztena**, Leitzakoak, azaroaren 9an.

Carlos Jose Altzugarai de Santiago eta **Eduarne Garro Dozagarat**, Lesaka eta Berakoa, azaroaren 2an.

Jose Ramon Mitxelena Lizardi eta **Itziar Lasaga Aldako**, Berakoak, azaroaren 9an.

Francisco Javier Igarzabal Esquina eta **Maite Gallego Jaunsaras**, Lesaka eta Iruñitakoa, azaroaren 2an.

Boris Robert Roger Imbert eta **Joséphine Suzanne Berthe Leclerc**, Azkaingoak, azaroaren 2an.

Bruno Georges Lacroix eta **Jocelyne Aline Clemente**, Azkaingoak, azaroaren 9an.

Jaime Urroz Telletxea eta **Iryna Alekseyvna Kowalyk**, Oitzkoa eta Ukrainakoa, azaroaren 16an.



SORTZEAK

Leire Arraztoa Aleman, Iruñitakoa, azaroaren 5ean.

Elena Sobrino Etulain, Arizkungoa, azaroaren 7an.

Eneko Setoain Gartxitorena, Berroetakoa, azaroaren 9an.

Maitane Goñi Mateo, Elizondokoa, azaroaren 3an.

Alazne Goñi Mateo, Elizondokoa, azaroaren 3an.

Mattin Endara Otxoteko, Berakoa, azaroaren 7an.

Oihan McMurray Ruiz, Berakoa, azaroaren 11n.

Maria Etxabe Olagarai, Zugarramurdiakoa, azaroaren 1ean.

Juliette Marie Douarche, Azkaingoa, azaroaren 7an.



HERIOTZAK

Jonan Loira Matxinena, Urrozkoa, azaroaren 10ean, 25 urte.

Carlos Martin Ibarra, Elgorriagakoa, azaroaren 7an, 38 urte.

Maria Eusebia Prieto Aginagalde, Berakoa, azaroaren 12an, 87 urte.

Toribio Agesta Arburua, Etxalarkoa, azaroaren 14an, 91 urte.

Jesusa Aranburu Iturritza, Berakoa, azaroaren 15ean, 98 urte.

Maria Jesus Oteiza Almandoz, Berakoa, azaroaren 16an, 85 urte.

Eduarda Likiniano Oianguren, Arantzán, azaroaren 16an, 95 urte.

Justo Layana Marco, Elizondokoa, azaroaren 9an, 78 urte.

Etienne Artola, Azkaingoa, azaroaren 12an.



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta
Zugarramurdi

24 orduko zerbitzua
tanatorioan eta etxean
prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704



Jonan LOIRA MATXINENA

2002-XI-10

*Hire presentziaren faltak
Triste paratzen gaituenean*

*Hire zain egon eta
Agertzen ez haizenean
Elkar begiratu ta ixilik
Gelditzen gaittukenean
Ohartzen gaittuk betiko
Hagola gure artean.*

Matte haugu Jonan!

Hire herriko lagunak.



Karlos MARTIN IBARRA

2002-XI-07

*Zenbat bihotz negarrez utzi
ditu zure martxak.*

*Guzien partez eta berriro
ikusitako arte muxu haundi bat*
KARLOS.

HERRI KIROLA

Nafarroak irabazi du aurten ere Gipuzkoaren kontrako aizkora desafioa

Berriozarko Aizkorbe-Bengoetxeak irabazi dute bigarren mailako arpana txapelketa

Aitor AROTZENA

Nafarroak irabazi egin zion Gipuzkoari azaroaren 15ean Donezteben bi herrialde hauen artean jokaturako aizkora lehian. Nafarrek bi saio irabazi zituzten, eta Gipuzkoak, aldiz, bakarra.

Miel Mindegiak eta Arrospeidek eman zioten saioari hasiera, eta bakoitzak zortzina enbor moztu behar izan zituen. Arrospeidek sasoi onean zegoela erakutsi zuen, eta nahiko ongi irabazi zion Mindegiari. Arrospeidek 15' 19" behar izan zituen lanak burutzeko, eta Mindegiak, berriz, 16' 29". Ondoren, Nazabal eta Larretxea Olsagasti eta Peñagari-kanoren aurka neurtu ziren. Bikote bakoitzak zortzi enbor etzanda eta bi zutik moztu behar izan zituen. Batera aritu ziren gehienez, baina azkenean etxeok lortu zuten garaipena. 19"



ARGAZKIA: LEGARRA

Mindegia, Nazabal eta Larretxeak garaipena eman zioten Nafarroari aizkoran. Berriozarko Aizkorbe eta Bengoetxeak irabazi dute Nafarroako bigarren mailako arpanlari txapelketa.

29" behar izan zituzten nafarrek euren lana burutzeko, eta Gipuzkoa-

koek, 19 segundu gehiago. Azken saioak erabaki behar zuen au-

zia. Talde bakoitzeko hiru aizkolariak batera aritu ziren, eta selekzio ba-

koitzak seina enbor moztu behar zituen. Enborretik enborra txandatu behar zuten, eta horrela aizkolari bakoitzak bina enbor moztuko zituen. Hemen ere ikaragarriko lehia izan zen, baina azkenean nafarrek irabazi zuten, juxtu-juxtuan eta desafioa ere irabazi egin zuten.

Nafarroako Bigarren mailako arpanlari txapelketa ere jokatu zen Donezteben. Bikote bakoitzak 105 zentimetro bueltan zituen enbor bati hamar epai eman behar zizkion. Txapela Berriozarko Oier Aizkorbe eta Jon Bengoetxeak irabazi zuten, lana 8 minutu juxtutan akautu ondotik Garraldako Juanperez eta Mandanen bigarren izan ziren, 12 segundura. Oteiza eta Zazpek osatu zuten podiuma. Perez eta Zuñigak, eta Hernaitz eta Baleztenak ere parte hartu zuten.

Nafarroako sokatira txapelketa larunbatean abiatu zen Imotzen

560 kiloko txapelketarik ez da jokatu aurtan

Nafarroako sokatira txapelketa larunbat honetan abiatu da. Imotzen mutilen 680 kiloko finala jokatu dute Lesakako Beti Gaztek, Txantreak eta Ezkabaondak. Pisu handienez,

beraz, saio bakarra izan da. Egun berean, 640 kiloko lehendabiziko jardunaldia egin zuten. 680 kiloko hiru taldeekin batera Berriozar lehiatuko da kategorian honetan. Emakumeen 520 kiloko

jardunaldia ere jokatu zuten Sakana, Imotz eta Txantreako taldeek larunbatean.

Igande honetan, abenduaren 1ean, Burlatako Askatasuna kiroldegian, 12:00etatik

aitzin, 640 kiloko mutilen bigarren eta azken jardunaldia jokatu da, baita emakumeen 520 kiloko bigarren eta azken saioa. Abenduaren 14an, Txantreako Orbina kiroldegian 17:00etatik aitzinera, mutilen 600 kiloko lehen jardunaldia jokatu da. Hemen ere Beti Gazte izanen da txapela janzteko faborito eta lesakarrekin batera Txantrea, Ezkabaondoa eta Berriozar lehiatuko dira. 480 kiloz

beheitiko nesken lehen saioa ere jokatu da Txantrean egun berean. Abenduaren 21ean azkenik, Berriozarko frontoi berrian, 600 kiloko mutilen bigarren eta azken jardunaldia eta 480 kiloko nesken bigarren eta azken jardunaldia jokatu dira, 18:00etatik aitzin. Honenbertzez akatuko da aurtengo Nafarroako txapelketa, 560 kiloko mutilen kategorian ez baita txapelketik egingen.

MOTORRA

Santi Artetxe gailendu zen Agiñako VII. rallysprint auto igoeran

Berrogeita hamabi ibilgailu aritu ziren azaroaren 16an Lesakan

A.A.

Santi Artetxe eta Txema Maiztegi bizkaitarrek osatutako taldeak irabazi zuen azaroaren 16an Eguzki Sport eskuderiak antolatutako Lesakako zazpigarren RallySprinta, Seat Cordoba WRC autoa gidatuz. Agiñako Igoerako lau txandatan gailendu ziren bizkaitarrak eta denbora osoa 25 minutu eta 42 segundukoa izan zen. Bigarren postua Errioxako Luciano Arrabal eta Angel Perezentzat izan zen (Mitsubishi Lancer), 29 segundura eta Jesus Barrera eta Chema Nietok (Mitsubishi Lancer), osatu zuten podiuma, 47 segundura. Joseba Beola eta Irazoki beratarren Citroen Saxoa ongi ibili zen lehendabiziko hiru txandatan, baina azkeneko txandan arazoak izan zituen eta 7. izan zen sailkapen orokorrean. Ion Iparra-girre «Katton» eta Ixa



ARGAZKIA: LEGARRA

Santi Artetxe eta Txema Maiztegi bizkaitarrek irabazi zuten azaroaren 16an Lesakako VII. rallysprint Agiñako auto igoera.

Barberena etxalartarrak (Saxo) 8. izan ziren.

Joseba Genua eta Pattin Sansiñena etxalartarrek (Citroen Saxo) lehendabiziko postua eskuratu zuten junior mailan. Ramon Zozaia eta Jozantonio Aiestaran lesakarrak (Seat Ibi-za), 17. postua erdietsi zuten. Iñaki Irigoien eta Ion Arburua (Peugeot

106) 33. izan ziren.

Guzira 52 autok parte hartu zuten Agiñako Igoeran, baina sei gidarik ezin izan zuten akautu. Lehenbiziko klasean, Alberto Garraza eta Oskia Dominguez (Citroen AX) gailendu ziren; bigarren klasean, Jesus Iturburu eta Andoni Mitxelena (Saxo) hirugarren klasean Ja-

vier Azcona eta Eduardo Urdiruz (Renault Clio Sport), laugarren klasean Txema Uzkudun eta Berdaitz Larrarte (R 11), bosgarren klasean sailkapen orokorreko irabazleak, Santi Artetxe eta Txema Maiztegi eta seigarren klasean Koteto Altzugarai lesakarra eta Sansiñena, BMW 528 Protoarekin.

FLASH



Ane Bergara

Gure Txokoa futbol taldeko neska gaztea Espainiako 17 urtez beheitiko selekzioarekin kontzentratua dago aste honetan Madrilan. Euskadiko selekzioarekin bi urtez aritu bada ere, lehen aldiz sartu da Espainiako deialdian.

Rafa Maritxalar

Hiru-herri taldean aritzen den Rafa maritxalar korrikalari lesakarrak irabazi zuen azaroaren 17an Irungo XXXIV. Krossa. Txingudi ikastola inguruan egin zen proban, Goierriko Ritxar Fernandez izan zuen areriorik handiena maritxalarrek. Azkenean lesakarra oñatiarra baino lau segundu lehenago helmugaratu zen. Txindokiko Jose Antonio Blancok osatu zuen podiuma, Antonio Bru beratarren aitzinetik sailkatu baitzen.

Berako Txarandaka taldea bikain dabil quad txapelketetan

Iñaki Irigoien Euskal Herriko eta Espainiako txapeldun

Berako Txandaka taldea bikain aritu da Espainiako eta Euskal Herriko quad txapelketan. Lehen mailako quade-tan, Iñaki Irigoien «Txarandaka» beratarrek bi txapelketak aisa irabazi ditu. Mugatutako quad-etan, Espainiako txapelketan hirugarren izan dira Lesakako Juan Mari Indakoetxea eta

Asier Lekuona. Logroñoko azken proba bigarren postuan ailegatu ziren lesakarrak, baina quad-a hautsi egin zuten eta arerioek ez zuten hutsik egin. Euskal Herriko txapelketan, aldiz, abenduaren 15eko azken proban parte hartzea aski izanzen dute lesakarrak txapeldun izateko.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Asier Lekuona (argazkian) eta Juan Mari Indakoetxea hirugarren izan dira quad mugatuen txapelketan.

AGENDA

egunez
egun

MENDI IBILADIAK

AZKAIN

Abenduaren 3, 4, 8, 10 eta 11n Ibiltzaile mendi talde berriak ondoko egunetan ateraldiak egingen ditu, herriko plazatik abiatuz. Larrungo inguruetan egingen dira denak (Xeruen Borda, Bera oihanetik, Xoldokogañako aintzira). Izen emaita: 0559544961.

DONEZTEBE

Abenduaren 1etik 3ra Erreka Mendi taldea Tuc de Tulleras mendira (3.010 m) joanen dira.

KULTUR EGUNAK

IGANTZI

Abenduaren 3tik 8ra Xehetasunak 11. orrian.

ITUREN

Abenduaren 6tik 8ra Xehetasunak 14. orrian.

DEIALDIAK

ELIZONDO

Abenduaren 2an Nekazarien Bilgura antolatuta du EHNEk Antxitonean. 11:00etatik goiti hitzaldiak, bertsolariak eta hameketakoa izanen dira.

AZKAIN

Azaroaren 30ean Bolibia Gaua antolatu da bil Tokin. Gracy aita semeak eta Frederic Lafitten espedizioaren filma eta ondotik 16 azkainarren diorama.

AZOKAK

SENPERE

Abenduaren 14an eguberriko lehen euskal artisau feria antolatu da karrikako errebotean. Xehetasunak 20. orrian.

TELEBISTAKO TXOKOA



SASKIGILEEI OMENALDIA

Igantzikoko Kultur Egunak ekitaldiz beteak

Ortzegunean egingen diren Lesakako Feriekin akautu dira aurten goz udazkeneko feria eta azoka denboraldia. Baina Eguberriak baino lehen bertze herrietan izanen dute kulturarekin lotutako ekitaldirik. Igantziko Kultur Egunak abenduaren 3tik 8ra egingen dira. Igantziko dantza taldearen saioa izanen da 3an, jaten dugunari buruzko solasaldia 5ean; 6an haurrentzat herri kirola eta pelikula eta helduentzako antzerki emanaldiak; antzerki gehiago eta Irlandako folka 7an... Egund nagusia, dena den, Amabirjin Eguna izanen da. Egund horretan herriko saskigileei omenaldia eskaini nahi izan diote Bil-

toki elkartekoek. Ttipi-ttapa Telebista bertan izanen da, noski, baina aitzinetik ere lana egina du, omenduak izanen diren saskigile batzuei egindako elkarrizketak bideoan ikusteko aukera izanen baitute igantziarrek.

ITURENGO KULTUR EGUNEK LEKUKOA ABENDUAREN 6TIK 8RA
Eta Igantzikoen ondotik Iturengo Ibtintza taldeak antolatutako Kultur Egund txanda izanen da. Aste hondar horretan pelikulak, antzerkia, lehiaketak... izanen dituzte eta Argazki Rallyan duela bi asteburu ateratako erretratoak ikusgai izanen dira.

DISKAK



«Lapurtar koblariak»

Pantxoia ta Peio

ELKAR, 2002

Diska hau, Lapurdiko herriari lapurtar bikoteak eskaintzen dion omenaldia da, lurralde ederra baita benetan, eskuzabala, kantu gozagarri eta fresko aunitzen inspiratzailea. Bidenabar, zenbait olerkari herrikoie ere aurkezten zaigu, duela bi mendeko zein garaikide izanik, eta denek arima bera islatzen dute, alegia, gure lurra eta herriarekiko maitasun suitsua: Manex Pagola, Martin Arrupe, Piarres Ithurralde, Gratien Adema «Zaldubi», Ganix Hallsouet, Josep Mendiague... Batzuk ezagunak eta bertzeren bat arrotz, idazkera molde laket bezain aberatsean emanik, sentsibilitate dohai handiak erabiltzen dituzte koblariok herriarenak diren irudi lirikoak eta sentipen koloretsuak herriari berari eskaintzeko. Musika moldaketak sinpleak bezain eraginkorak dira (Mixel Ducau).

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Azaroaren 8tik 15era bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 21,00 €

Zerri gizona
0,86 € kiloak.

Zerramak:
0,38 € kiloak, bizirik.



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,31
1.koa 3,19
2.koa 3,07
Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,37
1.koa 3,25
2.koa 3,14

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egund ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 252,43 € eta idixkoak 228,38 €

Nabarrak: urruxak 200,36 € eta idixkoak 176,32 €.
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,79/2,95
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,31/7,61
8-10 kilokoak: 6,36/6,80

JAKIN BEHARREKOAK

Giharren estimulatzaile elektrikoak

Leitzako irakurle batek, telebistako iragarkien bidez hain ezagunak egin diren giharren estimulatzaile elektrikoek buruzko informazioa galdegin digu. Tresna hauen alde txarrak eta onak zehaztea eskatzen digu. Izan ere, iragarkietan «zientifikoki frogatuak» daudela erraten dute.



Giharren elektro-estimulatzaileek burmuinaren lana egiten dute, aginduak zuzenean giharren nerbio motoreari emanez. kanpo elektrizitateak «lanean» jartzen ditu giharrak.

Merkatuan giharrak elektriko mugitzeko hainbat tresna daude. Gure irakurleak hainbaten ezaugarriak ematen dizkigu, batzuk beraien partxe edo bentosekin datozela, prezioak... Guzien azterketa egitea zaila denez, tresna hauen funtzionamendu orokorra argituko dugu eta gero, bakoitzak bere ondorioak aterako ditu. Lehenik eta behin, argi izan behar da zertarako nahi den tresna. Publizitadedeko modelo ikusgarriek dioten bezala, tresna hauek bi astez erabilita ipur-mazelak gogortu edo sabelaren borobiltasuna leundu zaila uste badugu oker gaude. Giharrak lantzeko hauek bildu eta lixatu egin behar dira.

Burmuinaren aginduen jarraituz horixe egiten du gorputzak. Gihar elektro-estimulatzaileek zure giharrak mugitzen dituzte, bildu, lixatu, altxatu edo mugitzeko beharrik gabe. Zure giharren «pilotu automatikoa» piztea bezalako da. Argi dago elektro-estimulatzaile hauekin giharrak bildu eta lixatzen direla. Horrek giharrei mesede handirik egiten ote dion ez dago hain argi. Duela 40 urte hasi ziren kirolari sobietarrak sistema hau erabiltzen. Medikuntza aldetik erabilpen handiak ditu (elektroterapia) eta giharrak atrofiazten direnean, nahitaez geldirik egon behar delako edo lesioen batengatik, giharrak puntuan edukitzeko komeni-

garria da. Ikerketen arabera, tresna hauekin indarra eta bolumena irabazten ahal da. Elektroestimuladoreak, giharrak mugitu nahi ditugunean gure burmuinak ematen dituen aginduak imitatzen ditu. Horretarako, elektrodoak ongi kokatu behar dira. Dena den, ez da elektroestimulazioa entrenamendu sistema bakartzat hartu behar. Metodo honekin ez dago mugimendurik, artikulazioek eta tendoiek ez baitute hobetzeko estimulaziorik hartzen. Gainera, bihotz-frekuentzia ez da kasik aldatzen. Beraz, giharrak mugitzen diren bertze ariketa aerobikoekin (lasterka egin, bizikleta...) konbinatu behar da.

AGENDA egunez egun

PAILAZOAK

LESACA

Abenduaren 1ean Takolo, Pirritx eta Porrotxen «Katxiporreta» ikuskizuna Zambra aretoan, 17:00etan. Otxogorrienea Guraso Elkarteak antolatua.

SOLASALDIAK

BERA

Azaroaren 29an Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia Nafarroako eskaldunen hzkuntz eskubideen inguruan ariko da Jamotenean, 18:30etan. Soziolinguistika jardunaldien baarnean, Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatua.

BESTAK

ETXALAR

Abenduaren 6an Heineken Besta Elutsa eta Herriko Ostatuan, 23:00etatik aitzinera.

FERIAK

LESACA

Azaroaren 28an. Goizezazienda lehiaketa, aizkolariak eta bertsolariak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Az. 25etik abenduak 1era Bera (A. Fernandez), Ituren, Elizondo (Iturralde), Iurita, Leizta (O. Erbiti), Goizueta.

Abenduaren 2tik 8ra

Igantzi (2 eta 3an), Etxalar, Doneztebe (S.Larraioz), Elizondo (F.Garcia Mata), Oronoz-Mugairi eta Goizueta.

Abenduaren 9tik 15era

Arantza, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Leizta (M.Plaza) eta Goizueta.

Abenduaren 16tik 22ra

Lesaca (O.Altzate), Doneztebe (A.Mendia), Elizondo (Gezuraga) eta Goizueta.

BERAKO KULTUR BATZORDEA

Non: Eztegara pilotalekuan.
Noiz: Azaroaren 30ean, larunbata.
Ordu egiaz: Goizeko 10:30etan.

Haurrentzako tailerrak
5 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutako eskulabailak, Jesusen Bihotza Kostetxeko Guraso Elkarteak antolatua.

barKATU

Bidasoako Bertso Paper Lehiaketako sari banaketa, eta ondatik, barKATU ikuskaria. Sustrai Colina eta Amets Arzailus bertsotan anko dira, Unai Elizasu gai jartzaile dela. Bertsolariak bertsoaren ingurukoak egingen die zirika, trama baten bidezidorrean barna. Entzulea ez da entzule soil, haren iritzi eta gogoeta izkutua bertsolariaren egingo baitute bere erratzeko beldurrik gabe.

Kultur Etxean.
Abenduaren 3an, asteartea.
Arratsaldeko 7etan.

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa iragarkia igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXE ELKARTUA SALGAI (BERA, Agerra auzoan, Bortziri karrikan)



Garajea bi kotxeentzat, gordeleku eta komunarekin: sukaldea moblezatua, jangela, lau logela, bi bainu eta bertze komun bat; ganbara; lorategia ureztatze automatikoarekin. Harreman zuzena nagusiarekin. 948 631322 (Joseba)

ADOS

• Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
• Edozein herritan badugu zerbitu. Eskatu informazioa
948 451 841 / 607 978 656

ADOS

DONEZTEBE • Santa Luzia Plaza
8 apartamentu eta 200m² lokal komertziala eraikiko dira. Elizagibela, 125 m²ko azken pisu berria salgai.
948 451 841

• **BAZTAN BIDASOA**
aldean lur eremuak erosiko nituzke.
☎ 607 978 656

de, egongela, bi komun, gara-
rajea eta trasteroarekin. ☎
948 246 314

ARIZKUN. Pisu moblezta-
tua salgai. Trastero eta ga-
rajearekin. Sartzeko modu-
ko. ☎ 639 012 085

IRUNEN. S. Etxandia, 6-
1.Esk. pisua salgai. Mo-
bleztatua, kalefakzioarekin,
sukalde berria, 2 gela, ko-

muna eta egongela. ☎948
637 499

LESAKA. 105m²ko duplexa
salgai. Berri-berria. ☎ 616
457 275

80m²ko pisua salgai. 3 lo-
gela, komuna, egongela
(20m²), sukaldea (12m²) eta
4 armairu enpotratu. 16 me-
troko balkoiez inguratua. Bis-
tak hagitz onak. ☎ 630 709
764 (3etatik aintzin)

ETXEBIZITZAK
104 Errentan hartzeko
BERA. Pisua errentan har-
tuko nuke. ☎ 626 852 937

LESAKA. Pisua erosi edo
errentan hartuko nuke per-
sona bakarrarentzako. ☎
661 845 048

ETXEBIZITZAK
105 Ebe konpartituak

IRUÑA. Pertsona euskal-
duna behar da pisua kon-
partitzeko. Barañain aldean.
☎ 678 249 174 - 610 622 889

GARAJE/LOKALAK
109 Errentan emateko
40m²ko bajera salgai. Ko-
munarekin eta altura erdian
15m²ko almagazena. ☎ 630 709

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

GARTZAIN. Etxerri auzoan
pisua salgai. 3 logela, sukal-

TRANSPORTES Y MUDANZAS
OLA

☎ 609 494 320 / 948 631 195
Plaza Zaharra, 5 • **BERA**

Orain zerbitzu berria: KAMIOIA PLATAFORMA ALTXAGARRIAREKIN

- **MUNTAIA:** era guztietako mogleak, industrialia...
- **ALDAIRAK:** segurtatuak, berme osoarekin.
- **GARRAIOAK:** zuzenak eta berehalakoak
- **ALTZARI-GORDAILUA:** zaindu eta gorde.
- **AGIRI-PAPERAK SUNTSITZEA:** dokumentu eta artxiboen garraioa.
- **ENPRESAK:** partikularrak, erakunde ofizialak.
- **GARRAIOAK MADRILERA:** etxetik etxera, mogle bakanak, garraio osoak...

TOKIAN BERTAKO ETA NAZIOARTEKO GARRAIOAK

transola@terra.es



ETXALARko UDALA

Kultur Etxerako langile bat, oposizio- lehiaketa bidez, bitarteko gisa eta lanaldi erdian hartzeko deialdia

- **Bete beharrak hauek izanen dira:** Puntu teknologikoak, liburutegiak eta kultur etxean jarriko diren zerbitzuez arduratzea, agintzen zaizkion gainerako egitekoetatik aparte.
 - **Kontratuaren iraupena:** Urte bat, bertze urte batez luzatzen ahal dena. C mailari dagozkion oinarriko lanariak izanen ditu.
 - **Tituluak:** Goi mailakoa, Informatika Sistemen Administrazioan, edo baliokidea.
 - **Onartuko dira titulu hauek ere:** Unibertsitateko tituluak, informatikari dagozkionak.
 - **Eskaerak aurkezteko epea:** Hogeita hamar egun naturaleko epea, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
- Deialdia interesatuen eskura dago udal idazkaritzan.

Etxalarren, bi mila eta biko azaroaren hamabian
ALKATEA, Miguel M^a Irigoien Sanzberro



764 (3etatik aintzin)

ETXALAR. Nabe bat errentan emateko. Karreteran bertan, herriaren sarreran, Lortzen lantegia zena. 300 m² inguru, 4 bulego, nabe bat eta komuna. ☎ 948 635 013

BERA. Agerra auzoan ilea-paindegia errentan emanen nuke. ☎ 948 599 158

LANA 301 Eskaria

Emakume batek etxeko lanetan, jabetxe batean edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 626 852 937

Zerbitzari lan eginen nuke asteburuetan. ☎ 650 772171

DONEZTEBE inguruan lan eginen nuke, xaharrak zaintzen, hostalaritzan edo etxeak garbitzen. ☎ 696 310 197

Zonaldeko enpresetan lan egiteko industria grafikoko diseinatzailea eskaintzen da. Altzari sektorean esperientzia, diseinu industrialean, diseinu grafikoan eta web orrialdetan. ☎ 649 470 649

LANA 302 Eskaintzak

Pertsona bat behar da propaganda banatzeko. ☎ 619 829 289

Pertsona bat behar da inkestak egiteko. Ordu-tegi malgua eta baldintza onak ☎ 619 829 289

Administrari laguntzailea. Deialdiak egiten dira abudo. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Administrariak. Gipuzkoa-

ko Diputazioak 101 lanpostuen deialdia egin du. Baldintzak: Eskola Graduatua. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Su-hiltzaileak. Euskadiko Parkeetan lan egiteko presta zaitez. Lan baldintza ederak. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Udaltzaina izan nahi duzue? Donostiako Udalerako 56 lanposturen deialdia egin da. Informa zaitez. ☎ 943444182.

Oihantzaina. Euskadiko Parke eta Natur Erreserbetan lan egiteko. Baldintza: Eskola Graduatua. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Garraioaria. Garraio lanetan profesionala izateko titulua lor ezazu. Informa zaitez. ☎ 943444182.

Autoeskola irakaslea. Diru-sarrera onak. Seguririk



TTIPI TXARTELArekin

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA DEBALDE HARTUKO DUZU

ETA DENDA HAUEN KASUAN HONAKO DESKONTUAK DITUZU

ESKUALDEKO 40 ZERBITZU ETA DENDETAN DESKONTUAK

SANSIÑENA GARAJEA

CITROEN eta AGRIA ZERBITZU OFIZIALA

Santiago • ELIZONDO
Tfn.: 948 580406

% 10 merkeago olio aldaketak



Elizagibela, 7 • DONEZTEBE
Tfn-Faxa.: 948 450 521

% 10 merkeago 12 €tik goiti

Semper autoeskola

Eztegara, 26 • BERA
Tfn.: 948 630298
948 637206

% 10 merkeago matrikulan



ZAPATADENDA

San Miguel, 2 • DONEZTEBE
Tfn.: 948 450382

% 10 merkeago



Argazkiak eta erreportajeak

948 580491 • ELIZONDO
948 450364 • DONEZTEBE

% 10 merkeago errebelatuetan



Ezkontzak • Jaunartzeak
Haurrak • Esudioak

948 580155 • ELIZONDO
948 450825 • DONEZTEBE

% 10 merkeago errebelatuetan

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Corsa D, Marbella, Terrano 5 ate,
Suzuki Ignis 4x4, Marbella,
Mitsubishi 3 atekoa
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

lana izanen duzu. Informa zaitez. ☎ 943444182.

MOTORRA 501 Salerosketak

Sei eserleku dituen furgoneta Peugeot J5 salgai. Mobleztatua eta isolatua. ☎ 617 350 176

Aprillia Chesterfield motoa salgai. 75cc, extrak. Egoera onean ☎ 686 162 517.

Citroen Saxo 16 v. 40.000 km. Na-BB salgai. ☎ 649 994 992.

A6, 110 CVkoa salgai. Egoera hagitz onean ☎ 607 978 656.

ANIMALIAK 601 Emateko

Purita izeneko arratoi zakurra naiz. Kumeak izan ditut eta 3 beltz edo 2 eme eta ar bat gelditzen zaizkit emateko. ☎ 948 451 787 Ituren

DENETARIK 702 Salerosketak

Sukalde ekonomikoa 60x60 cm, Deville markakoa salgai, egoera hagitz onean. ☎ 948 630 029

Akordeioa salgai. Pigini modelo, 55-BSE NOR CASSOTTO. ☎ 948 630 832

Su egurrezko sukaldea salgai egoera onean. Guttibililia. ☎ 948 627 557.

Etxe guztirako kontsumo bazujozko kalefaktore elektrikoa salgai. ☎ 948 630 029.

Kalefakzio kaldera bat erosi nuke. Gasoilezkoa (bi-

garren eskuko). ☎ 948 630 449 (eguerditan 1-3etara eta arratsetan 8-10etara).

DENETARIK 703 Bertzelakoak

Akordeoi klaseak jubilatuentzat bereziak. Bakar-kakoak, ordu-tegi flexiblea, musika ezaguerarik gabe. ☎ 948 631 003

DONEZTEBE. Zilarrezko zintzilarioa aurkitu da. Sergio izena jartzen du. ☎ 948 451 742

HARREMANAK 801 Agurrak

Zorionak Xabi! Tori berrakada handi handi batzuk eta segi sasoi betean. Euskal presoak etxera!

Nahi dut zorionak eman Irurritako Martinari. Kontuz ibili Armada. Zure lagun bat.

ttipi-ttapa

urtebetetzeak

Argazki soilak: 3 €. Bikoitzak: 6 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,25€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3 edo 6€ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.


Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.



ILUNE CAMBRA RODRIGUEZ 7 urte bete ditu azaroaren 22an. Zorionak ama, atxatxo eta familiaren partetik. Muxu haundiak.



AIMAR ZAMORANO DUARTE lesakarrak 2 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak aita, ama eta Unairen partetik.



SAIOA ZOZAIA FERNANDEZ lesakarrak 2 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak ama eta attatoren partetik.



MAITETU GOIA beratarrek 15 urte bete ditu azaroaren 25ean. Zorionak familiaren partetik.



ENEKO ESPARZA CHUECA azaroaren 3an urteak bete ditu. Zorionak Iratxe, Fermina, Luzio, Mabi eta gurasoen partetik.



GEMA SEIN RETEQI ez kantatu hainbete eta prestatu agudo merendue. Zorionak eta segi hain xeble.



MIKEL CASTILLO GRAZIARENA beratarrek 3 urte beteko ditu abenduaren 7an. Zorionak Patxi, atxa eta amaren partetik.



BEÑAT MITXELENA SAOGASTIBELZA beratarrek 6 urte bete ditu azaroaren 24an. Sei muxu Lesakako amatxiren partetik.



MABEL ETA BEÑATEK urteak bete dituzte azaroaren 19an eta 24an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.




XABIER beratarrek urteak beteko ditu azaroaren 30ean. Zorionak zure guraso eta anaien partetik.



NURIA beratarrek abenduaren 1ean urteak beteko ditu. Zorionak zure koinatu eta aitaginarrareta eta amaginarrebaren partetik.



NAIA MITXELENA MITXELENA lesakarrak 5 urte bete ditu azaroaren 25ean. Aunitz urtez atxa eta amaren partetik.



NAIA MITXELENA MITXELENA lesakarrak 5 urte bete ditu azaroaren 25ean. Aunitz urtez eta muxuak Lesaka eta Berako aitaxi-amatxiak.



IBAI ETXEBERRIA BURLANDA aranztarrek 7 urte beteko ditu abenduaren 2an. Zorionak Oihana, Maite eta famili guziaren partetik.



ZORIONAK ENEKO! Muxu haundi bat. Asko maite zaitugu. Azaroaren 11n 2 urte bete ditu.




NAGORE ANSALAS DANBORIENAK abenduaren 8an urte aunitz beteko ditu. Txanpainarekin ospatzea espero dugu. Admiradore taldea.



ITZIAR ETXARTE MIKELESTORA 21 urte beteko ditu abenduaren 6an. Afaria noiz? Ongi pasa eta muxu handi bat. Kuadrila.



Berako **OLAIA, ALAZNE ETA AMATXIK** urteak bete dituzte azaroaren 24 eta 27an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



IRIGO donamariatarra abenduaren 10ean 10 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



ASIER SALABERRIA TAUBERNA astigarrek abenduaren 9an 11 urte beteko ditu. Zorionak Goizuetako familia eta Mikeilen partetik.



ZORIONAK PAKITA Urteak pasa dira, baina lehen bezalaxe segitzen duzu. Txanpain eta pastela noizko?



ARKAITZ MINDEGIA aurtiztarrek abenduaren 15ean 20 urte beteko ditu. Segi beti bezain alai.



ABENDUAREN 27AN xahartuko da. Zorionak Totune! Pastelak noiz? Lankideak.



XUBIAN ETA UXURI ETXEOLA ETXEBESTE 4 urte eta 2 urte beteko dituzte azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO

BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,25 EUROKO 13 SEILU TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA (Nafarroa)



BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

U.U.7.1eko BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONARTZEA ETA HIRIGINTZA HITZARMENA SINATZEA: NICASIO GOÑI

2002ko azaroaren 7an Udaletxeko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. NICASIO GOÑI aurkeztutako U.U.7.1eko Borondatezko Birpartzelazio Proiektua hasiera batez onestea.
2. Borondatezko Birpartzelazio Proiektu honekin batera doan Hirigintza Hitzarmena sinatzea.
3. Aipatu Birpartzelazio Proiektua eta Hirigintza Hitzarmena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Irigarki Taulan eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabalitzen den egunkarietarikoa batean alde aurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurrean jartzea.
4. Erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Bera, 2002.11.11

ALKATEA

J.J. Goia Etxeberria



BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

UDAL KIROL INSTALAKUNTZEN KUDEAKETA ETA KIROL JARDUEREN KOORDINAZIOA

Berako Udalak, udal kirol instalakuntzen kudeaketaren eta kirol jardueren koordinazioaren zerbitzua esleitzeko lehiaketa irekia kaleratzen du.

- Kontratuaren xedea: Udal kirol instalakuntzen kudeaketa eta kirol jardueren koordinazio zerbitzua.
- Esleipen modua: Prozedura irekia, lehiaketa bidez.
- Urteroko prezio maximoa: 48.080,97 euro. (BEZ barne)
- Proposamenak aurkeztea: Irigarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta ondoko 27. egun naturala arte. Egun hau larunbata suertatzen bada, ondoko astelehenean irekiko dira.
- Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hamargarren laneguneko 14,30etan. Egun hau larunbata suertatzen bada, ondoko astelehenean irekiko dira.
- Aurreproiektua, baldintza tekniko eta klausula administratiboen pleguak interesatuen eskura udal bulegoetan eta Interneteko <http://www.animsa.es/taflon-anuncios/> helbidean izanen dira.

Bera, 2002.11.07

ALKATEA, J.J. Goia Etxeberria

ELKARLANEAN, ETORKIZUNA GUREA

«Zure botoa da gure indarra. Baliagarria izanen da nekazaritzaren defentsan. Aprobetxa ezazu»

«EHNE baserritarren tresna da. Sektoreak prezio eta errenta duinak behar ditu»



Abenduaren 18an, Denok EHNE-rekin



*Nekazaritzaren etorkizuna
zure eskuetan dago*

*Zure laguntza beharrezkoa da
Baseritik bizi garen guztiontzat*

**2002ko Abenduaren 18an
Nafarroako Nekazarien Ganbarako Hauteskundeak**



H s tu v s k zUN k

L run t , z r k 3

H STEK

K m s t k r tuk zk u r tx n
s rtuk r n l h n zk 1.5 l un

SEGITZEK

Mus k t ntz l tu
JULEN t N Z k uk r tu'

UK TZEK

EKIN NTZ

G u r uk r mun l m t k

TX
n l h n,
h rtz zu
tr xk t

BAR
SHANTI

EL C² FE

12
st tu

r
AMEZTIA
s r

BIXEN
OSTATUA



r
INTZI

R. st ur ul
EL RR

